

Charles Baudelaire

Haxixaren poema

euskaratzailea: Oier Alonso

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Oier Alonso.

Euskarazko edizioa: Infomart, 1998

Jatorrizkoaren data: 1858

Charles Baudelaire euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=146>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1196>

Hitzaurrea

Bada literatura eta artea noizbait hil zirela uste duenik. Baina duela gutxi jaio direla ere esan daiteke, ez baita denbora gehiegi igaro egilea bere lanaren izaeraz erabat ohartu denetik. Indarra mantentzen duen ikuspuntu honek Erromantizismoan izan dezake jatorria. Sinbolistek honen hazia jaso eta hona hemen Baudelaire bezalako artista, apika poesia modernoaren aita, Rimbaud eta beste idazle sorta bat baztertu barik. Hauen artean bere lanean eragin nagusia izan zuen Poe dugu aipatu behar, baina lan honetan Thomas de Quinceyrena argiago gertzen da. Literatura norberaren gogo sortzailearen adierazpen gisa eratzten lagundu zuten idazle hauek.

Honako *Haxixaren poema* hau dugu Baude-laireren emariaren froga. Bere poesia klasikoagoari esker ezagutzen bada ere, prosa eta poesiaren arteko nahasketaren ideia zor dio literaturaren historiak, lan hau eta *Petits poèmes en prose* izan zirela medio. Hortaz, izenburua ain-

tzat harturik, zentzu poetikoa eman diezaiogun liburuxka honen irakurtzeari. Idazketaren formak iruzurtuta jarduten badugu, agian tratatu moralista bat besterik ez baitugu sumatuko, eta zalantzazko modernotasun batek lagundurik, Pepito Grilloren kargua leporatuz, egilea kondenatuko dugu. Epaile itxurako aurpegi zorrotza poetaren mozorro hutsa da. Beraz ezin dugu poesiaz horditurik baino ulertu poesia hau. Gaur egungo idazlearen jarrera anbiguoak, Baudelaireren anbiguotasuna aitzindari izanik ere, beste gauza batera ohituta gaitu, anbiguotasuna nabariago agertzen baitigu. Literaturari ekarri dion pentsatzeko askatasunarekin esker onekoak izan gaitzen eta ez dezagun egin berak gorroto zituen moduko judiziorik.

Baudelaireren garaia zentzu guztietan izan zen iraultzaile. Idazleak, mundua jasaten ari zen itzelezko aldakuntzak asimilatu nahian zebiltzan. Denbora eta espazioaren arteko proportzioen ideia zeharo aldatu zen, garraioak eta beste asmakizun miragarriak zirela-eta. Honek errealitateari nolabaiteko kutsu kaotikoa ematen zion. Einsteinen erlatibitatearena usaindu egin bai-

luen, Baudelaire pertzepzio berrien behaketan murgiltzen da, eta hortik hain modernoa zen bidaiaren gaia jorratu zuen. Baina ez anglosaxoiek egokiago zuten bidaia fisikoa (Stevenson...), baliorik gabe geratu zitzaion frantsesari exotismo erromantikoa. Baudelairek barne bidaiari ekin zion eta irudimena bihurtu zuen jarraibide. Beste bidaietarako trena asmatu zen bezala drogen lasterbidea azaldu zitzaion idazleari gogoaren bidaiari aurre egiteko. Egun, horrela deitzen dio jende askok horditasunari, bidaia, baina benetan ez dakit zenbaterainoko zerikusirik daukan egilearen bidaia izpiritualarekin. Hark irudimenaren bidea hartu zuen izutu barik, eta, bizitza egunero asmatzeko, zuen jarrera sortzailea begitantzen zait ezberdintasun nagusia.

Argi geratzen ez den beste gauza bat Baudelairek drogak maite zituenentz da. Zinez maite zuena bizitza zen, eta esaldi hau drogaren aurkako kanpainetan erabiltzen bada ere ez da horren kontrajarrera gordinik agertzen poema honetan. Drogak eskaintzen duen paradisua artifiziala dela salatzen du, baina nolabait bizitzan

den orori atxikitzen dio hau, Pessoa geroago egingo zuen erara, eta paradoxa biribiltzeko, bizitzari artifizioa eransten saiatu zen Baudelaire, gizartearen azpikeria borrokatuz aldi berean. Drogaren sasi gaitzespen hau malenkoniaz betarik eratu zuen, *Tempus fugit* klasikoaren jorratze modernoan aurkeztuz. Azken finean ergelkeria eta mitifikazio itsua borrokatzen zituen, gauzak bere neurrian ulertu behar direla argudiatuz. Bizitzan gauza oro da zoragarri, ondo profitatzea gelditzen da gure esku, surrealisten ikasbide ederra eduki zuten hemen. Askatasunaren alde lan egitea proposatzen digu. Ildo honetatik gaizki-ulertu anitz jasan du lan honek. Batzuentzat intolerantzia suertatu da, besteentzat eskandaluzkoa, eta aurreiritzi barik ulertu nahi duenarentzat aldiz poesia hutsa.

Bizitza maite zuela esaten dudanean, bere osotasunean maite zuela esan nahi dut, *Infinituaren gutizian* ederto adierazten duen moduan. Erabateko desirak zituzten garaiko idazleek, erabateko maitasuna, erabateko jakinduria... Eta ez bazuten ulertzen prosa eta poesian banaturiko literaturarik, nolatan onartu behar zuten mun-

dua eta bizitzaren ezagupena inola ere zatitzea? Hortaz, letra-gizona izanik ere, Baudelaireri zientzia ere bai interesatzen zitzaion oso modu berezian. Ez zitzaion inoiz bururatuko kaxoi isolatuetan sartzea gauza biak, biek osatzen baitute neurri berean bizitza. Horregatik izugarri mires-ten zuen natura, bertan dena dagoelako, eta Lautreamontek hegaztiak deskribatzen zituen modura, Baudelairek ez du beldurrik zientzia poesia bailitzan aurkezteko. Horrelako mugarik ez zuten onartzen.

Ez dakit Baudelaireren estilo hanpatua itzul-terakoan asmatu dudan, gure hizkuntza ez baita egokiena erromantzeen apaindurak adie-razteko, modu ulergarri eta apalean jarduten saiatu naiz besterik gabe.

Bukatzeko, aipaturiko hanpatasuna gaindi-tzea besterik ez diot eskatuko irakurleari. Poe-siaz horditu (edota ardoz edo bertutez...) eta ondo pasa!

Oier Alonso

Haxixaren poema

I.— INFINITUAREN GUTIZIA

Bere burua behatzen jakin eta inpresioen memoria gordetzen dutenek, euren barometro izpirituala eraikitzen jakin dutenek, Hoffmannen modura, sasoi ederrak, egun zoriontsuak eta minutu zoragarriak dituzte apuntatzeko pentsamenduaren behatokian.

Egun batzuetan gizona jeinu gazte eta kementsua duela esnatzen da. Betazalak ixten dituen loguraz libratu orduko, kanpoko mundua indar itzelez agertzen zaio, ingeradak garbi eta kolore aberastasun miresgarriaz. Mundu moralak bere perspektiba ederrak zabaltzen ditu, argitasun berriz beteta. Gizona, zorion hau eskertuz, zoritxarrez bitxi eta pasakorra, artista, eta zuzenagoa ere sentitzen da aldi berean, prestuago, hitz batean esanda. Baina gogo eta zentzuaren egoera aparta honetan, exajeratu barik paradisukoa deitu ahal dudana, egunoroko bizitza arruntarekin konparatuta, zergati nabari eta defini errazaz ez dena sortu, litzateke gauzarik bereziena. Higiene onaren eta erregimen

zuhurraren ondorioa al da? Hau da gogoari ematen zaion lehen azalpena. Baina onartu beharra dugu, askotan gauza harrigarri hau, nolabaiteko mirari hori, goi-mailako indar ikustezin baten efektua balitz bezala gertatzen da, gizonaz kanpoko indarra, honek bere ahalmen fisikoak denboraldi batean gehiegi erabili eta gero. Ardurako otoitzaren eta irrika izpiritualaren sena dela esan dezakegu? Desioaren areagotze jarraia, gogoaren indarrak zerurantz duen tirabira liteke erregimen egokiena moralezko osasun hau sortzeko, hain da nabari eta ospetsua. Baina orduan, nolatan agertzen da egoera hori irudimenaren orgia errudunaren ostean, arrazoiak gehiegikeri sofistikak jasan eta gero? Arrazoiaren erabilera hau, erabilera zintzo eta zentzudunaren aldean, itzulipurdika ibiltzea bezala da, gimnasia sanoarekin parekatzen badugu. Horregatik nahiago dut gogoaren ezohizko egoera hori benetako dohaina dela pentsatzea, gizona bere burua ederra ikustera gonbidatzen duen ispilu magikoa. Hau da, berez izan beharko lukeen bezala, aingeruasaldura antzeko bat, aldatzeko abisua era konplutuegian. Halaber izpituaren eskola bat, Inga-

laterra eta Amerikan ordezkariak dituen, mamuen agerpenen gisako naturaz gaindiko gertakariak Jainkoaren adierazpenak direla pentsatzen dute, gogoaren errealitate ikusteazina pizteko erne dagoen jainkoa.

Bestalde, egoera xarmant eta berezi honetan, indar oro orekatzen da, irudimenak ahalmen miragarria izanik ere, ez du zentzu moralik sortzen abentura arriskutsuen ostean, nerbio gaixoek ez diote sentikortasun finari oinaze gehiagorik egiten, krimena eta etsipenaren kontseilari diren nerbioak. Egoera honek ez dauka aldez aurreko sintomarik. Mamu bat bezain ezustekoa da. Obsesio antzeko bat da, baina aldizkako obsesioa. Zentzudunak bagina, bizitza hobe baten ziurtasuna aterako genioke obsesio horri, borondatearen egunoroko jardunaren bidez lortzeko esperantzaz. Pentsamenduaren zorrotzetasun hau, zentzuen eta gogoaren berotasuna, lehen ondarea bezala agertu zaio beti gizonari. Horregatik berehalako gozamena besterik ez du kontuan hartu, eta bere gorpuzketaren legeak hausteagatik kezkatu barik, zientzia fisikoan bilatu ditu bere lokatzezko etxetik ihes egiteko

baliabideak, ordu batzuk pasatzeko baino ez bada ere, eta *Lazare* idatzi zuenaren modura «paradisua behingoan eskuratu», likore latz eta usain sarkorren bidez, klima eta garai guztietan. Ai ene! Gizonaren bizioak, ustez atsekabez beteta, bere infinituaren gutziaren froga dira, (froga hori bizioen hedapen hutsa ez balitz ere!) sarritan bidea tronpatzen duen gutizia da. *Bide gutziek Erromara* eramaten dute esaera arrunta zentzu metaforikoan har genezake eta mundu moralari erantsi. Gauza orok sana edo zigorra ematen digu, betikotasuneko forma biak. Giza gogoan grinaz beterik dago, saltzeko moduan dago, esamolde arrunta erabiltzen badugu eta zoritxarreko gogo hau, zeinaren berezko ustelkeria eta bere barra-aldirako gaitasuna bezainbaterkoak diren, gaitasun la paradoxikoa, karitate eta dohain zailenetan gainezkako grina honen hustubidea gaiztakeriatan erabiltzen uzten dion paradoxetan oparoa da. Bere burua saltzen duenik ez du uste inoiz. Harropuztuta, ahaztu egiten du bera baino maltzur eta indartsuagoa dena arbuiatzen duela. Eta gaizkiaren izpirituak, ile bat baino ez zaionean ematen ere, burutzen

bukatzen du beti. Izaera ikuskorreko jaun ikuskor honek (gizonarekin ari naiz) paradisia botikaren bitartez lortu nahi izan du, edari hartzituekin, altzari sendo eta benetako lorategiak oihalean margotutako eta markoan ipinitako dekoratuekin ordezkatzeko dituen zoroaren pare. Infinituaren zentzuaren ustelkeri honetan datza, nire ustez, gehiegikeri errudun guztien arrazoia. Bai idazlearen kasuan, bere horditasun bakarti eta kontzentratutik hasita, min fisiko batendako lasaitua opioan bilatzera behartuta agertzen denean, gozamen erigarrien iturri bat aurkituz, pixkanaka erregimen bakarra eta bizitza izpiritualaren eguzki bihurtzen zaio-eta opioa. Eta bai behe auzoko mozkorkeria higuigarriaren kasuan ere, bideko lohietan barregarri lorrintzen dena, burua irrikaz eta handitasunez beteta.

Ideal artifiziala deitzen dudana sortzeko, droga egokien artean, amorru fisikoa piztu eta gogoaren indarra lurrera botatzen duen alkohola eta usaintzekoak alde batera utzita, irudimena zolitu egiten badute ere indar fisikoa apurka-apurka ahitzen dutenak, substantzietatik adoretuenak, eskueran daukagunak eta erosoak era-

biltzeko, haxixa eta opioa dira. Droga hauek sor ditzaketen ondorio misterioitsu eta gozamen erigarrien behaketak, drogak luzaroan erabiliz gero ematen diren ezinbesteko zigorrek eta, azken finean, ideal faltsu baten jazarpenari dagokion moraltasunik ezak ere osatzen dute azterlan honen xedea.

Opioaren gaineko lanari ez diot ezer erantsiko, modu bikainean jasota baitago, bai alde medikoa eta alde poetikoa ere. Beraz, liburu paregabe honen behaketa besterik ez dut egingo beste ikerlan batean, Frantzian ez baita osorik itzuli. Egilea, gaur egun bakarti eta isil, gizon ospetsua da, irudimen bortitzekoa. Opioan topatu dituen gozamen eta oinazeen kontakizuna egiten ausartu da, xalotasun tragikoaz, eta liburuiko atalik dramatikoenean azaltzen ditu borondatearen ikaragarritzko ahaleginak, zuhurtzigabe hartu zuen kondenaziotik libre geratzeko.

Egun haxixaz baino ez dut hitz egingo, datu ugari eta zehatzen arabera: idatzien laburpenak edota haxixaren menpe aspaldi dauden gizon azkarren konfidentziak. Monografia antzeko baten gainean eraikiko ditut era desberdineko

agiriak, arima bat aukeratuz, azaldu eta definitzeko orduan erraza, izaera honetako esperientziak izateko pertsona aproposa.

II.— ZER DA HAXIXA?

Marco Poloren kontakizunek barre anitz sortu dute, beste bidaiari zahar batzuen modura, baina jakitunek baieztatuta izan dira eta guk sinestea merezi dute. Ez dut kontatuko, paradisu-ko ideia irakasteko, zeuzkan jarraitzaile gazteenak, nola entzerratu zituen mendiko zaharrak, atseginez beteriko lorategi batean haxixez (hemendik sortu da *haschichins* edo *asasino* hitza) mozkortu eta gero, pentsatu gabeko obedientziaren sari erdizka ikusia bailitzan, nolabait esatearren. Irakurleak, haxixaren mundu sekretuari dagokionez, Hammer-en liburua eta Silvestre de Sacy-ren memoria begira dezake, eta *assasin* hitzari dagokionez *Moniteur*-eko erredaktoreari bere gutuna, 1809. urteko 359. zenbakian sartuta. Herodotok kontatzen duenez, eszitek kalamuaren hazia batu eta suan gorrituriko harrien azpian ipintzen zituzten. Herri hark Greziako edozein lurrinketa baino usain-bainu perfumatuagotzat zuten, izan ere gozamen biziak poztasun oihuak ateratzen baitzitzaizkien.

Haxixa, hain zuzen, ekialdetik datorkigu, kalamuaren ahalmen bizigarria ondo ezaguna zen antzinateko Egipton, eta erabilpena oso zabaldua, izen ezberdinekin, Indian, Aljerian eta Arabia zoriotsuan. Baina gertu dauzkagu, begibistan, landare emanazioek eragindako liluraldiaren adibide bitxiak. Umeen kasua aipatu barik, luzerna ebakiko mordoetan jolastu eta iraulkatu eta gero bertigoa pairatzen dutenean, jakina da kalamuko uzta jasotzen denean, langileek, gizon eta emakumeek, antzerako efektuak jasaten dituztela. Uztatik gora buruak aztoratzen dituen miasma gaizto bat irteten dela esango genuke. Biltzailearen burua zurrunbiloz gainezka ipintzen da, zenbaitetan ametsez beteta. Une batzuetan gorputzadarrak ahuldu egiten dira eta ez dute lan egin gura. Nekazari errusiarren artean maiz ematen diren sonanbulismo krisiak entzunak ditugu. Zergatia janarietako kalamu haziaren erabilerari atxikitzen zaio. Nork ez ditu ezagutzen kalamu haziak jandako oiloen bitxikeriak, baita zaldien garra nekazariak kalamu hazi errazio batekin prestatzen dituztenean, maiz

ardoz lagunduta, ezkontza eta jaietako lasterketetan.

Frantziako kalamua ordea ez da haxixa egiteko egokia, esperimentu ugarien arabera, haxixa bezain droga indartsua emateko desegokia da. Haxixa edo kalamu italiarra, *cannabis indica*, asunen familiakoa, gure klimako kalamuaren guztiz parekoa da, altuera berdina ez dutela izan ezik. Aparteko ahalmen liluragarria dauka eta orain urte batzuk jakintsuei eta jende mundukoari deigarri gertatu egin zaio. Jatorri ezberdinen arabera estimatzen da. Bengalakoa hasi berrien artean da preziatuena; aldiz, Egipto, Constantinopla, Pertsia eta Aljeriakoez propietate berdinak dituzte, baina neurri txikiagoan.

Haxixa (edo *belarra*, hau da, landare nagusia, plazer materiagabe ororen iturria landare nagusizat baitute arabeez) izen ezberdinak ditu, osaketa eta jatorrian izan duen prestatze moduaren arabera: Indian *bangie*; Afrikan *tenaki*; Aljeria eta Arabia zorientzuan *madjound* eta abar. Ez da berdin urteko edozein sasoiari jasotzea. Loretan dagoenean dauka indar gehien, beraz loredun

puntek osatzen dute komentatuko ditugun pres-takinetan erabiltzen den partea.

Haxixaren estraktu koipetsua, arabiarren erara prestaturik, landare moztu-berriaren pun-tak ur apur batekin gurinetan irakiten lortzen da. Hezetasun guztia lurrindu eta gero, iragazi egi-ten da eta kolore hori berdexka duen pomada itxurako prestakina lortzen da. Honek haxix eta gurin kerratuko hatsa du. Era honetan, bitik lau gramo arteko bolatxoetan prestatzen da, baina geroz eta sakonagoa den kiratsa dela-eta, ara-beek konfituran sartzen dute estraktu koipetsua.

Konfituren artean usatuenak *dawamesk* izena du. Estraktu koipetsua, azukrea eta hain-bat usainen nahasketa da: bainilla, kanela, pista-txoak, arbendolak edo musketa, adibidez. Batzuetan errauli pixka bat botatzen zaio, baina honek ez du zerikusirik haxixaren ohiko emaitze-kin. Modu berri honetan haxixa ez da batere desatsegina eta 15, 20 eta 30 gramoko dosiak har daitezke bai ostia orri baten bilduta eta bai kafe kikara batean ere.

Smith, Gastinel eta Decourtive-ren experi-mentuen xedea haxixaren osagai aktiboen aurki-

kuntza da. Baina hala ere ez dakigu ondo zein den bere osaera kimikoa. Normalean neurri handian daukan erretxina bati atxikitzen zaizkio bere propietateak, ehuneko hamarreko proportzioaren inguruan. Erretxina lortzeko landare idorra birrindu egiten da nahiko lodi, eta aldi askotan garbitzen da, segidan distilatuko den alkoholean. Alkohol hau hein batean kenduko da, estraktu bihurtu arte baporatzen baita. Ura dela medio goma antzeko substantzia anitzak desegiten dira eta erretxinak purutasuna lortzen du.

Emaitza biguna da, berde iluna eta haxixaren usain berezia dauka neurri handian. 5,10 edo 15 zentigramo nahiko dira efektu harrigarriak emateko. Baina haxixinak, txokolate pilula edo jengibreko pilula bezala ematen dena, *dawamesk* edo estraktu koipetsuaren moduan, hainbat izaera ezberdineko efektu bortitz edota motelagoak ditu, beti norberaren jitearen eta nerbio-minberatasunaren arabera. Are gehiago, pertsona berak ere efektu ezberdinak paira ditzake. Eutsi ezineko poztasuna izan daiteke batzuetan, gustura eta bizitzaren osotasunean izatearen

sentsazioa bestetan, edota ametsez beteriko loaldi nahasiak ere bai. Dena den, badira sarri errepikatzen diren fenomenoak, antzeko hezkuntza eta jiteko pertsonen artean, batez ere. Baina aniztasun honetan badaukagu nolabaiteko batasuna aipatzerik eta honi esker, lehen esan dudan horditasunaren monografia aise idatziko dut.

Konstantinoplan, Aljerian eta Frantzian bertan ere bai, badago haxixa tabakoarekin nahastuta erretzen duenik, baina oso motel, eta nolabait esatearren, nagi agertzen dira aipaturiko fenomenoak. Egun ezagutzen den prestakin oro baino ahalmen askoz handiagoko olio hegazkorrera erauzi egiten diote haxixari duela gutxi. Baina inork ez du aztertu ondorioei buruz hitz egiteko beste. Kafeak edo alkoholak misteriozko horditasun honen zabaltzeari sendo laguntzen diotela ez dago esan beharrik.

III.— SERAFINEN ANTZERKIA

Zer sentitzen da? Zer ikusten da? Gauza zoragarriak, ezta? Aparteko ikuskizunak? Ederra al da? Izugarria oso? Eta arriskutsua? Horrelakoa da ezjakinak adituari egiten dion galdekizuna, beldurrarekin nahasturiko jakinminez. Umeen jakiteko ezinegona dela esan liteke, supazterretik aldendu ez den jendearenaren antzekoa, herrialde urrun eta ezezagunetatik datorren gizon baten aurrean aurkitzen denean. Herrialde miragarri baten gisa irudikatzen dute haxix hor-ditasuna, inkamina eta prestidigitazio antzerki handia bailitzan non gauza oro mirari eta ezustekoa den. Aurreiritzia da hau, erabateko nahastea. Irakurle eta galdetzen dutenei haxix berbak mundu arrotz eta nahasi baten ideia ekartzen dienez, amets miragarrien zain (haluzinazioak esatea zuzenagoa litzateke, eta hauek ere uste dena baino gutxiagotan ematen dira) geratzen dira. Haxixaren ondorio eta ametsaren fenomenoen arteko ezberdintasunak azaldu egingo ditut orain. Gaueroko bidaia ausarta den ame-

tsean mirarizko gauza positiboren bat badago, puntualtasunak mirariari misterioa erantzten badio ere. Gizonaren ametsak bi motatakoak dira. Batzuk, eguneroko bizitzaz beteta, kezka, nahiez eta bizioz, egunetik zehar erdikusitako gauzeekin nahasten dira nolabaiteko modu arraroan, gauza hauek oroimeneko oihal zabaletan zentzurik gabe finkatu egin baitira. Azken hau da berezko ametsa, gizona bera dena. Baina beste motako ametsa! Amets burugabea, ezustekoa, lo egiten duenaren bizitza eta grinekin, izaerarekin zerikusi eta loturarik ez duena! Hieroglifiko deituko dudan amets honek bizitzaren naturaz gaindiko aldea irudikatzen du argi eta garbi. Eta burugabea delako, hain zuzen, dibinotzat hartu dute aintzinakoek. Berezko zioen bidez ulertezina izaterakoan, gizakiarengandik kanpoko arrazoi bat atxiki izan diote. Are gehiago gaur egun, neorromantikoak alde batera utzita, bada ametsetan gaitzespena edo aholkua ikusten duen filosofi-eskola bat, azken batean amets egiten duenaren gogoan sortzen den koadro sinboliko eta morala. Ikertu beharreko hiztegia da eta hiz-

kuntza honen gakoa adituek besterik ezin dute lortu.

Haxix horditasunari dagokionez, ez dauka antzekorik ezer. Amets naturaletik ez gara irten-go. Horditasunak irauten duen bitartean ez da egundoko ametsa baino izanen, koloreen bizitasun eta asmatzearen bizkortasunari esker. Baina gizabanakoaren tonu berezia betiere mantenduko da. Gizonak amets egin nahi izan du eta ametsak gizona gobernatzeko du, baina amets hau bere egilearen fruitua izango da. Laxo dagoen gizona naturaz gaindikoa dena bere bizitzan eta pentsamenduan sartzen konpondu da. Baina azken finean eta gizon horrek sentitzen duena horrenbeste indarra izanik ere, gizon bera izaten jarraitzen du, handitua, sekulako indarrez hazi egingo bailitzan. Azpiraturik geratzen da, baina zoritxarrez bere buruak azpiratua, alegia, bere baitan duen alde menperatzaileak. *Aingeruarena egin nahi izan du eta piztia bihurtu da*, une batez oso indartsua, baldin eta gehiegizko sentikortasunari indarra deitu ahal bazaio. Gainera indar hori ezin denean ez ustiatu eta ez kontrolatu.

Jakin dezatela jende mundukoiak eta ezjakinak, plazer apartak ezagutu nahian badira, haxixari ez diotela mirarizko ezer topatuko. Ezer ez, naturala dena gehiegizko heinean baino. Haxixak eragindako buru eta organismoetan ez dira emango ohiko gertakariak baino. Bereziak, neurri eta indarrean handituak, hori bai, baina betiere euren jatorriarekin bat. Bere jite fisiko eta moralaren zoritxarrari ez dio ihes egingo gizonak. Haxixa gizonaren uste eta gogoeta arruntan handitze ispilua izanen da, baina ispilu hutsa besterik ez.

Hona hemen droga, begi-bistan: konfitura berde apur bat, intxaur baten tamainakoa, izugarri usaintsua, nolabaiteko nazka eta goragalea eragin arte, baina usain fin eta atsegin orok antzera egingo luke bere indar eta mami guztiarekin eman ez gero. Laga iezadazue esaten, bide batez, proposamen honi buelta eman ahal zaiola eta usainik nazkanteena, okaztagarriena atsegin bihur daitekeela neurri eta hedapen txikian bada. Hona hemen zorientasuna! Koilara txiki baten edukiera betetzen du! Zoriona bere horditasun guztiekin, bere zoramen guztiekin eta bere

umekeri guztiekin. Beldur barik jan dezakezu, horrek ez du inork hiltzen. Zure gorputzeko organoek ez dute erasorik jasoko. Agian beranduago, sorginkeria gehiegitan eginez gero, borondatea murriztuko zaizu, gaur baino gizontasun gutxiago izango duzu. Baina hain da urruti zigorra, eta hain zaila geroko hondamenaren izaera zehaztea! Zer jartzen duzu arriskuan?

Biharko nerbioak pixka bat nekatu. Ez al duzu zigor handiagorik arriskatzen sari txikiagoak jasotzearen? Beraz, esan bezala: drogari indar eta hedapen handiagoa emateko estraktu koipetsua kafe huts kikara batean urtzera ailegatu zara. Tripa hutsik edukitzen arduratu zara, gaueko bederatziak edo hamarrak arte atzeratuz funtsezko janaria eta horrela lan egiteko askatasuna emateko pozoia. Asko jota zopa arin bat hartuko duzu ordu baten buruan. Sabela prest daukazu orain bidaia luze eta berezira. Bapote-makinak adarra jo du, ontziko belak zuzendu dituzte eta ohiko bidaiarien aldean nora zoazen ez jakitearen abantaila bitxia duzu. Zuk nahi izan duzu, gora zoritxarra!

Menturazko bidaia honetarako une egokia hautatzen arduratu zarela espero dut. Lasaikeria perfektuak aisia perfektuaren beharra du. Bestalde, badakizu haxixak exajerazioa sortzen duela eta ez bakarrik gizabanakoarena, baizik eta egoerarena eta inguruarena ere bai. Ez duzu puntualtasun edo zehaztasuna eskatzen duen betebeharririk. Ezta famili-atsekaberik edo maitasun penarik ere. Erne ibili behar da. Atsekabea, kezka, minutu jakin batean zure borondate eta arretak eskatzen duten beharra gogoratzeak kanpai baten moduan joko du zure horditasunean barrena eta zure gozamina pozoituko du. Kezka estualdi bihurtuko da eta atsekabea oinaize. Esandako baldintza guztiak betetzen badira, eguraldia ederra bada, inguru egokian baldin bazaude, alegia, paisaia goxo bat edo poesiaz apaindutako apartamentu bat, gainera musika pitin bat entzun ahal baduzu, orduan dena dago primeran.

Orokorrean hiru fase dauzka haxix horditasunak, bereizteko nahiko errazak. Gauza bitxia da hasi-berrien artean lehengo fasean ematen diren sintomak behatzea.

Haxixaren efektu zoragarriei buruz zerbait entzun duzu, zure irudimenak ideia zehatza eratu du alde zurririk, horditasunaren eredu baten antzekoa. Errealitatea zure itxaropenaren parekoa den jakitea falta zaizu orain. Nahikoa da hau hasiera batetik erabat larrituta izateko eta honek pozoiaren izaera menperatzaileari laguntzen dio. Lehen hastapenetan hasi-berri gehienek efektuen geldotasuna salatzen dute, umezinegonaz itxaroten dituzte. Drogak ez duenez nahi bezain azkar eragiten, arrandia sinesgogorretan dihardute haxixa menperatzen duten adituek barre egiten duten bitartean. Lehen erasoak, aspaldi dudatsu dabilen ekaitzaren seinale, sinesgabezia horren baitan agertu eta ugaltzen dira. Lehenik zure jabe egiten den halako barre bat izaten da. Burugabea da eta ezin da eutsi. Arrazoirik gabeko pozaldi hauek lotsa apur bat ematera iristen dira eta sarri anizten dira zure harriduran lasaitu nahiez zauden bitartean. Hitz xume eta ideia hutsalek itxura bitxi eta berria hartzen dute, ordura arte hitz arruntak zirela pentsatu izanak ere harritu egiten zaitu. Zeure buruak parekotasun eta konparaketa zentzuga-

beak egiten ditu, hitz joko bukaezinak eta hitzerdi barregarriak dauzkazu jario etengabeen, deabruak harrapatu egin zaitu, kilimak bezain mingarri den barrearen kontra setatzea alferrikakoa da. Noizbehinka zure buruari egiten diozu barre, zure ergelkeria eta zoramenari. Zure lagunak, baldin badituzu, barrezka daude zure egoera eta eurena direla eta, baina maleziarik ez dutenez ez zara amorratzen.

Poztasun hori aldizka hildu eta zorrotza izaten da. Ondoez alai hori, segurtasun gabezia, gaitzaren ezbai honek nahiko denbora motza irauten du orokorrean.

Ideiak berehala lausotzen dira oso, eta hain mehe bihurtzen da zure pentsamenduen haria, ezen zure kideek baino ezin baitzaituzte ulertzen. Gainera honi buruz ere ezin da ezer egiaztatu, agian ulertzen zaituztela uste dute eta begitazio bera duzue alde bietan. Eromen eta barealdi hauek, leherketen parekoak, benetako zoramenduaren antzera agertzen dira gutxienez zure egoera berdinean ez dauden guztien begietara, ergeltze maniako bat bezalakoa izaten da. Halaber zuhurtasuna eta zentzua, horditu ez den

lekuko burutsuaren gogoeten normaltasunak ere poztu eta barregura ematen dizu erotasun mota berezia bailitzan. Rolak behekoz gora jarri dira. Burutsuaren odol-hotzak ironiaren azken muturreraino eramaten zaitu. Bere lekuan ez denarentzat ulertezina den poztasuna dastatzen duen gizonaren egoera, ez al da barregarri eta misteriotsua? Eroa zuhurraren erruki da, eta ordutik aurrera bere nagusitasunaren ideia gailentzen hasiko da bere adimenaren ikuspegian. Berehala haziko da, handitu eta meteoro baten modura lehertuko da.

Ikuskizun mota honetako baten lekuko izan naiz, eta egia esateko, urrunegi ailegatu zen. Substantziaren efektuak eta ustez berdin diren bi adimenen arteko diapaso desberdintasun handia ezagutzen dutenek bakarrik ikusten zioten alde barregarria eszenari, beste baten behaketaren bitartez ezagutzen bazuten ere. Haxixaren ezaugarriak ezagutzen ez zuen musikari ospetsua, agian aipatzerik ere ez zuena inoiz entzun, droga hartzen zuen jende talde batean suertatu zen. Efektu zoragarriak ulertarazten saiatzen ziren besteak. Kontaera miragarriak

entzuterakoan irribarre egiten zuen xelebre, ondo geratzearren, minutu batzuetan posatu nahi izan bailuen. Pozoiak zorrozturiko adimenek segidan asmatu zioten sentitzen zuen destaina, eta euren barreak min egin zioten. Barrealdia, hitz jokoa eta giro kaltegarriak amorratu egin zuten gizona eta esan nahi ez zuena esatera iritsi zen: «Artista izaera hau ez da ona eta negargarria izan behar du eraman behar duenarentzat». Barreak izpiritu oro argitu zuen, tximistaren pare. «Zama hau ona izan daiteke zuentzat, baina ez niretzat.» «Guretzat ona izanik nahikoa dugu», erantzun zuen gaixoetariko batek, berekoi. Benetako eroak ziren ala itxurak egiten ari ziren jakin barik, gure gizonak erretiratzea uste zuen zela zuhurrena. Baina norbaitek atea itxi eta giltza ezkutatu zuen. Beste batek, bere parean belauniko, barkamena eskatu zion taldearen izenean, eta lotsagabe baina negar batean esan zion bereganako adiskidantza sakona sentitzen zutela, gupida ematen zuen bere txikitasun izpirituala kontuan izanik ere. Etsituta, geratu egin zen eta musika apur bat egitera ere iritsi zen, behin eta berriz eskatu ziotelarik.

Baina biolinaren soinuak, beste kutsatze bat bezala zabaldurik etxetik zehar, gaixo bat zein bestea atzitu (hitza ez da bortitzegia) egiten zituen. Hasperen erlatsak ziren, tupusteko negar-zotinak, malko isiletako errekek. Musika-riak eten egin zuen ikaraturik eta zorion asaldatuena sentitzen zuenari, asko sufritzen zuen eta mina kentzeko zer egin behar zen galdetu zion. Bildutako batek, *gizon praktikoa*, limoi-edaria eta jaki garrantzak proposatu zituen. Baina gaixoak, begiak liluraturik, erdeinu ikaragarriaz begiratzen zien guztiei. Bizitza gehiegiz gaixotutako gizona sendatu nahi izatea ere... Pozez gaixotuta!

Pasadizo honetan ikusten denez, onginahiak garrantzi nahiko handia dauka haxixak sorturiko sentazioen artean, onginahi nagia, mutua eta nerbioen hunkipenetik datorrena. Adierazpen honi lagunduz, pertsona batek horditasun mota honetan gertaturiko abentura kontatu zidan. Sentazioen oroipen zehatza izan zuenez, ederto ulertzen dut lehen esandako diapasoi eta maila diferentziak zer nolako enbarazu barregarri eta askaezinean jarri zuen. Ez dut gogoratzen gizon

horren lehen ala bigarren esperientzia zen. Gehiegizko dosia hartu al zuen ala haxixak efektu kementsuagoak sortu al zizkion, inongo zergati nabarmenik gabe (maiz gertatzen dena)? Kontatu zidan, bere gozamenaren bitartez, bizitzaz beterik sentitu eta bere burua jeinuz beterik ikustearen goreneko gozamenaren bitartez, ikarazko arrazoi bat aurkitu zuela bat-batean. Sentipenen edertasunak itsuturik geratu zen lehenik, behingoan izutua geratzeko gero. Bere adimena eta organoei zer jazoko zitzaien galdetu zion bere buruari, naturaz gaindikoa bihurtzen ari zen egoera okerragora joango al zen, nerbioak geroz eta hauskorragoak bihurtuko al zitzaizkion... Gaixoaren begi izpiritualak duen handitze-ko ahalmena dela-eta, oinaze kontaezina izan daiteke beldur hau. «Zaldi zoroaren modukoa nintzen ni, esaten zuen, amildegirantz korrika, geratu nahian baina ezinik. Arrapalada ikaragarria zen, hain zuzen, eta gorabehera, inguru, ustekabe eta *halabehar* hitzari dagokion guztia- ren esklabo bihurtu zen nire pentsamendua, rap- sodiaren norabidea hartu zuen erabat. Beran- duegi da! Esaten nion nire buruari behin eta

berriz, etsipenez. Sentikortasun modu honek eten egin zuenean, agian minutu batzuk besterik ez zuena iraun baina izugarri luzea iruditu zitzaidana, zorionean murgildu ahal izango nintzela pentsatu nuenean, ekialdekoek gogoko duten zoriona eta fase sumintsu baten atzetik datorrena, atsekabe berri batek itoa izan nintzen. Kezka berria, umekeria hutsala niregana amildu zen. Afari batera gonbidatua nintzela gogoratu nuen tupustean, gizon agurgarrien artean gaua pasatzera. Aldez aurretik jendetza zuhur eta zentzudunen artean ikusi nuen sartua nire burua, norbera bere buruaren jabe, nire gogoaren egoera ezkutatzera behartuta nengoelarik, argi ugariak itsututa. Ondo aterako zitzaidala uste nuen, baina aldi berean behar nuen borondate ahalegina pentsatzeak ahitu egiten ninduen. Ez dakit zein ustekabe zela-eta ebanjelioko hitz hauek bururatu zitzaizkidan: *Eskandalua jazotzen zaionarentzat ezbeharra*. Berba hauek ahantzi nahiez eta benetan ahaleginduz, gogoan errepetitzen nituen etengabe. Nire ezbeharrak (egiazko ezbeharra nuen eta) egundoko neurria hartu zuen. Ahul izanik ere adorez ekitea eta botikari

bati galdetzea erabaki nuen, erreaktiboak ezagutzen ez nituenez. Burujabe eta erne nahi nuen joan nire betebeharrak deitzen ninduen mundura. Baina botikako ataurrean bat-bateko gogoeta batek harrapatu egin ninduen, une batez gelditu eta pentsarazi eginez. Nire burua ikusi berria nuen erakusleihen baten ondotik pasatzerakoan eta harritu egin ninduen nire aurpegiak. Zurbiltasuna, ezpain estutuak, begi handituak! Kezkatu egingen dut gizona! Pentsatu nuen. Huskeria bategatik. Horri barregarri geratzea saihestu nahi nuela gehitu behar zaio, farmazian jendea topatzeko beldurra. Baina botikari ezezagunarekiko nuen tupusteko onginahia zen nire sentimenduen artean nagusi, zorigaitzeko une hartan ni bezain sentibera irudikatzen nuen gizona eta bere belarri eta arimak neureen modura dar-dar egingo zutela imajinatzen nuenez, farmaziara oin-puntetan sartzea erabaki nuen. Ez naiz inoiz zuhurregi arituko laguntza eskatu behar diodan gizonaren etxean, pentsatzen nuen. Nire ahotseko soinua nire pausoen zarata bezala moteltzea erabaki nuen. Ezagutzen al duzu haxix ahots hori? Baxua eta sakona, eztarrikoa, opiojale

zaharrenaren antzekoa. Lortu nahi nuen kontra-
koa izan zen emaitza. Botikaria lasaitzen eraba-
kita izutu egin nuen. *Gaixotasun* honen gainean
ez zuen ezer ezagutzen, ezta aipamenik entzun
ere. Bitartean jakingura eta mesfidantzaz begi-
ratzen zidan aldi berean. Zoro, gaizkile edota
eskaletzat hartzen al ninduen? Dudarik gabe, ez
hau eta ez bestea, baina zentzugabeko ideia
guzti hauek nire burua zeharkatzen zuten. Kala-
mu konfitura zer zen eta zertarako balio zuen
luze azaltzera behartua izan nintzen (a ze
nekea!). Inongo arriskurik ez zegoela errepika-
tzen niolarik, artegatzeko arrazoirik ez zeukala
eta ez nuela sosegu edo erreakzioa lortzeko
baliabidea besterik nahi. Enbarazu egiteak ema-
ten zidan atsekabea benetakoa zela ere errepika-
tzen nion. Azkenik, eta hitz egiterakoan ipini
nuen beheramendu guztia ulertu behar duzu,
erretiratzeko eskatu zidan, besterik gabe. Hau
izan zen nire gehiegizko karitate eta onginahia-
ren saria. Afarira joan nintzen eta ez nuen inor
asaldatu. Inork ez zuen asmatu mundu guztiaren
antzekoa izateko behar izan nuen ahalegin itze-
la. Eta inoiz ez ditut ahaztuko horditasun ultrapo-

etiko baten oinazeak, begiruneak gogaitua eta betebeharrak batek nahigabetua baldin bada!»

Irudikapenetik sortzen diren atsekabe guztiak begiko baditut ere, istorio honekin ezin dut barre baino egin. Kontatu egin zidan gizona ez da oraindik zentzatu. Bere baitarik topatu behar zukeen kitzikapena konfitura madarikatuari eskatzen jarraitzen du. Baina gizon zentzuduna denez, neurritsua eta *munduko* gizona, dosiak txikiagotu ditu eta honek maiztasuna handitzea laga dio. Bere higienearen fruitu ustelak beranduago jasoko ditu.

Horditasunaren ohiko garapenera itzuliko naiz. Ume pozaldi hau eta gero une bateko barealdia dator nolabait. Baina gorputzadarretan sentitzen duzun freskotasunak (egundoko hotza ere bihurtu daiteke batzuetan) eta berealdiko ahuleziak jazoera berriak igartzen ditu berehala. Gurinezko eskuak dituzu, eta buruan, zure izate guztian, harridura eta espantu deserosoak sentituko dituzu. Zure begiak handitzen ari dira, estasi anker batek alde guztietatik tiratuko bailien. Zure aurpegia zurbildu egiten da. Estutu egiten dira zure ezpainak, aho barrurantz sartuz, irrika

mugimendua egin ez, ekintza handiek kezkatu den gizonak duen handinahia ezaugarri den mugimendua, gogoeta astuneko zapaldua edota indarra hartzeko arnasa hartuz. Eztarria itxi egiten da, nolabait esatearren. Egarrak ahosabaia lehortzen du eta gustura asetuko zenuke nagia- ren gozamina atseginagoa ez balitz eta gorputzaren mugimendu txikienari ere traba egingo ez balio. Zure bularretik hasperen erlats eta sakanak ateratzen dira, zure *lehengo* gorputzak arima *berriaren* nahia eta jardura jasango ez balitu bezala. Noizean behin astinaldi batek zeharkatzen zaitu eta nahi ez duzun mugimendua agintzen dizu, zeharo lokartu aurretik izaten diren bihotz iraulien pare, lanegun luze baten ostean edo ekaitz gau batean.

Urrunago joan aurretik, lehen esandako freskotasan sentazio horren gainean pasadizo bat kontatuko dut. Bide batez pertsonaren arabera zein efektu ezberdin sor daitekeen azalduko dut, efektuak erabat fisikoak izanik ere. Oraingoan idazle batek hitz egiten du, kontakizuneko pasarte baten jite literarioaren arrastorik erraz aurkituko dugu.

«Neurritz hartu nuen estraktu koipetsua, esaten dit hark, eta dena primeran ari zen irteten, pozaldi erigarriak denbora gutxi iraun zuen. Ia zoriona den ahuldade eta harridura egoera batean nengoen. Kezkarik gabeko arratsalde lasaia espero nuen. Zoritxarrez, halabeharrik ikuskizun batera norbaiti laguntzera derrigortu ninduen. Adorez hartu nuen nire zeregina, nire nagi eta ez mugitzeko gutizia itzela ezkutatzea erabakita. Nire auzoko kotxe guztiak hartuta zeuden, ibilbide luzea egiteko konformatu beharra neukan. Kotxeetako zarata deseginen artean iragan, pasatzen ari zirenen elkarrizketa lerdoak entzuten nituen eta ezin konta ahala huskeriaz inguraturik nengoen. Hatz puntetan freskotasan pixka bat sentitu nuen eta segidan hotz bizia bilakatu zen, eskuak ur izoztuaz beteriko ontzi batetan sartuta banitu bezalaxe. Baina ez nuen sufrimendurik, gozamen baten antzera zeharkatzen ninduen sentsazio ia zorrotz hark. Bitartean hotzak geroz eta estuago harrapatzen ninduela iruditzen zitzaidan, amaigabeko bidaiaren arabera. Bizpahiru aldiz galdetu nion lagunari hotz handia egiten zuenentz, aitzitik tenperatura

epela baino epelagoa egiten zuela erantzun zidan. Azkenik aretoan ondo jarrita, niretzat gordetako palkoan sartuta, aurretik atsedean, hiruzpalau ordu nituela, agindutako lurrera iritsia nintzela pentsatu nuen. Bidean ukatutako sentimenduak oldarka sartu ziren nire baitan une hartan nuen indar ahul guztiarekin eta nire frenesi ahularen aurrean axolagabetu egin nintzen. Hotza berriz ere handitu zen eta nik aldiz jendea oso arin jantzita ikusten nuen, baita kopetako izerdia zapi batez xukatuz ere, tankera nekatuaz. Ideia pozgarria otu zitzaidan, gizon pribilegiatua nintzen ni, ikuskizun areto batean ni nintzen udan hotz izateko eskubidea zuen bakarra. Hotza beldurra eman arte ere areagotu zen, baina zein punturaino jaitsi ahal zen jakitearen nahiak menperatu ninduen. Nolabait esatearren, hain izan zen erabatekoa, zabaldua, non ideia oro izoztu egin baitzidan. Izotz mordo pentsalaria nintzen, izotz bloke batetik landutako estatuetzat nuen nire burua. Harrotasuna ematen zidan haluzinazio eroak, definitzen ez dakidan ongizate morala esnatzen zidan. Ikusle guztietatik inork ez zuela nire egoera ezagutzen eta

eurenganako nuen nagusitasunaz berririk ere ez zutela jakiteak nire gozamen higuigarria areagotzen zuen. Gainera nire jabe ziren sentsazio arraroetaz laguna ez ohartzeak zoriontasun handia ematen zidan. Disimuluaren saria gordetzen nuen eta nire gozamen aparta benetako sekretua zen.

Bestenaz, nire palkoan sartu bezain pronto hotzaren ideiarekin nolabaiteko zerikusirik zeukan iluntasun inpresio batek nire begien kontra egin zuen. Ideia bi hauek indarra elkarri ematea ere posible da. Badakizue haxixak argiaren handitasunak eskatzen duela beti, distira loriatsuak, urre likidoko turrustak, argitasun orok on egiten dio. Argitasun hau ur-jausian isurtzen da eta punta eta laztasunetara heltzen dira, lentejuelen antzera. Areto handiko zutargiak, Mariaren hileko kandelak, eguzkia sartzen denean ematen diren arrosa koloreko uharrak. Itxura denez, argi-armiarma kaskar hori ez da argitasun egarria asetzeko beste. Esan dizudan bezala, itzal mundu batean sartzen nintzela pentsatu nuen, pixkanaka trinkotzen ari ziren gainera itzal horiek, gau polar eta betiereko neguekin amets

egiten nuen bitartean. Eszenatokiari dagokionez (antzezlan barregarri baterako zegoen prestatura), leku argidun bakarra zen, izugarri txikia eta urrun, oso urrun kokaturik. Estereoskopio erraldoi baten bukaeran bezala ikusten nuen. Ez dizut esango antzezleak entzuten nituenik, badakizu hori ezinezkoa dela. Nire gogoak noizbehinka esaldi zati bati heltzen zion eta dantzari trebe baten pare, tranpolintzat hartzen zituen urrutiko ametsetarantz salto egiteko. Antzezlan batek, pentsa genezake, modu honetan entzunik, ez dauka ez logika eta ez loturarik. Begiak zabaldu! Ene distrazioak sortutako istorioari oso zentzu zorrotza asmatzen nion. Ezerk ez zidan atentzioa ematen. Esther lehengo aldiz antzezten ikusi zuen poetaren antz apur bat neukan, Amanek erreginari maitasuna aitortzen zionean ez baitzen batere harritzen. Bistakoa denez, Aman Estherren aurrean makurtzen deneko pasarteaz ari naiz, bere krimenagatik barkamen eske dabilenean. Antzezlan guztiak metodo honi jarraituz entzunez gero, edertasun handiagoa lukete, Racineren lanak barne.

Antzezleak txikiegiak iruditzen zitzaizkidan, ingurune zehatz eta zaindu batek setiatuak, Meissonier-en irudien antzekoak. Ez nituen jantzien xehetasun txikienak bakarrik ikusten, oiha-len marrazkiak, josketak, botoiak eta abar, baizik eta gezurrezko eta benetako aurpegien arteko bereizketa marra, txuria, urdina eta gorria, eta makillaje baliabide guztiak ere bai. Eta Liliputeko gizontxo haiek argitasun magiko batez estalita agertzen ziren, olio-pintura bati beira oso garbiak ematen dionaren modukoa. Azkenik, itzal izoztuen zulotik irten ahal izan nuenean, eta behin barneko fantasmagoria lasaitua izan zela, nire senera itzuli nintzen, inoiz derrigorrezko lan astunak eman didan baino neke handiagoa sentitu nuen.»

Horditasuneko aldi honetan ematen da, hain zuzen, fintasun berri bat, sentimen guztien zorroztasun handiagoa. Usaimena, ikusmena, entzumena eta ukimenak aurrerapen honetan parte berdina hartzen dute. Begiek infinitua ikusten dute. Belarriak zalaparta handienez harrapatu ezin diren soinuak ere sumatzen ditu. Orduan hasten dira haluzinazioak. Bata bestea-

ren atzetik, kanpoko objektuek itxura berria hartzen dute pixkanaka, deformatu eta eraldatu egiten dira. Gero nahasteak datoz, hutsegite eta ideien trukaketa. Soinuak kolorez estaltzen dira eta koloreek ere musika daukate. Hau oso gauza naturala dela esango du norbaitek, buru poetiko orok erraz asmatzen baititu parekotasun hauek, egoera osasuntsu eta normalean. Baina irakurlea abisatuta dago, haxixaren horditasunak ez du naturaz gaindikorik ezer. Parekotasun hauek ohikoa ez den bizitasuna daukate, besterik ez. Burua nahasten dute, ahituz, eta gogoia nahasten dute era despotikoan. Musika notak zenbaki bihurtzen dira, eta zure buruak erraztasun pitin bat baldin badu matematikarako, doinua, entzundako harmonia, guztiak atsegineko izaera sentzuala mantentzen badu ere, dena bihurtzen da eragiketa aritmetiko. Zenbakiek zenbakiak sortzen dituzte eta hauen faseak eta sorrera adierazi ezin den erraztasunez jarraitzen dituzu, jotzen duenaren trebetasun berdinarekin.

Batzuetan izaera desagertzen da eta poeta panteistek berezko duten objektibotasuna modu arraroan hedatzen zaizu. Kanpoko objektuak

begiratzek zure existentzia ere ahantzazten dizu, zure burua eurekin nahastera ailegatuz. Zure begiek haizeak okertzen duen zuhaitz harmoniatsu batean ipini dute arreta. Segundo batzuen buruan poeta batentzat oso konparaketa naturala litekeena errealitate bihurtuko da zuretzat. Lehenik zure grinak emango dizkiozu zuhaitzari, zure desirak eta malenkonia, bere ulu eta kulunkak zeureak bihurtzen dira, eta laster zuhaitza bera izango zara zu. Halaber, gizakien gauzen gaineratik hegan egiteko gogo hilezkorren irudia izango da, ortziko hondoan hegaka dabilen txoria. Eta jadanik txoria bera zara zu. Eserita eta erretzen asmatzen zaitut. Zure arreta denbora luzean ipiniko da zure pipak jariatzen dituen laino urdinduetan. Lurrinketa baten ideiak zure gogoan menperatuko du. Lurrinketa motela, geldiezia, betierekoa, eta laster ideia hau zure gogoetari atxikiko diozu, zure materia pentsalaritari. Nahaste bitxia dela-eta, *qui pro quo* intelektualaren trukatzeko moduko bat, lurrintzen ari zarela sentituko duzu, eta zure pipari (zeinetan tabakoaren erara uzkuritu eta batuta sentitzen

zaren) zu erretzearen ahalmen arraroa atxikiko diozu.

Zorionez, irudikatze bukaezin honek ez du minutu bat baino iraun, ahalegin handia eginez, argitasun tarte batek erlojuari begiratzen utzi baitizu. Baina beste ideia jario batek eramaten zaitu oraingoan, beste minutu batez izango zaitu bueltaka zurrumbilo bizian, eta beste minutu hau ere eternala izango da. Denboraren eta izatearen neurriek sentrazioen eta ideien aniztasun eta indarrak nahasten baitituzte. Ordu baten tartean gizon askoren bizitzak bizi ahal direla esan genezake. Nolabait idatzi izan beharrean bizi egiten den eleberri fantastiko baten parekoa zara. Jadanik ez da organu eta gozamenen arteko ekuaziorik. Pentsatze honetatik dator batez ere askatasuna desagerrarazten duen jarduera arriskutsu honi egin ahal zaion gaitzespena.

Haluzinazioei buruz ari naizenean, ez dago hitza bere zentzu hertsienean hartu beharrik. Medikuek sarritan aztertze aukera duten haluzinazio hutsa eta haxixak eragindako zentzuen nahasteak eragindako buruaren egoeraren artean xehetasun garrantzitsu batek egiten du

desberdintasuna. Lehengo kasuan, haluzinazioa bat-batekoa da, perfektu eta saihestezina. Gainera ez du kanpoko objektuen mundutik aitzakiarik hartzen. Gaixoak ikusten duen irudia, entzuten dituen soinuak hutsetik ateratzen ditu. Bigarren kasuan haluzinazioa pixkanaka dator, ia gaixoaren borondatez, eta ez da perfektu bihurtzen, ez du imajinazioak baino garatzen. Aitzakia bat dauka azken finean. Soinuak hitz egingo du, gauza diferenteak esango ditu, baina bazegoen soinu bat. Haxixak harrapatutako gizonaren begi hordiek irudi bitxiak ikusiko dituzte, baina bitxi edota izugarriak izan aurretik, irudi hauek xalo eta naturalak ziren. Indarrak, haluzinazioak horditurik hitz egiten duen bizitasunak ez du jatorrizko desberdintasuna murrizten. Haluzinazio honek ingurunean eta orainaldian ditu sustraiak eta besteak ez.

Imajinazioaren irakite hau hobeto esplikatze-ko, ametsaren osatze hau eta haxixak kutsaturiko buruak dakarren argiztapen poetikoa azaltze-ko, beste pasadizo bat kontatuko dut. Oraingoan ez du egonean izaten den gizon gazte batek berba egiten, ezta letra-gizon batek ere. Emaku-

mea da, emakume pixka bat heldua, ikusmina, gogoaz erraz asaldatzen zaiona. Pozoia ezagutze-ko nahiari amore eman eta gero, horrela adierazten dio beste dama bati bere begitazio nagusia. Hitzez hitz idatziko dut:

«Oso arraro eta berriak izanda ere, nire hamabi ordutako (hamabi ala hogeit? egia esateko ez dakit) eroalditik ateratako sententzioak ez ditut berriz dastatuko. Gogoaren kitzikapena biziegia da, ematen dizun nekea handiegia eta dena esatearren, umekeri honi zerbait kriminala ere topatzen diot. Azkenean jakinahiak irabazi egin zidan. Gainera taldean egiteko zorakeria zen, lagun zaharren artean duintasun apur bat alde batera uzteari ez nion ezer txarrik ikusten. Ezer baino lehenago haxix madarikatu hori substantzia zitala dela esan beharra daukat. Horditasunaz libratu zarela uste duzu batzuetan, baina gezurrezko barealdia besterik ez da. Geraldia egin eta jarraitu egiten du atzera ere. Horrela ba, gaueko hamarrak aldean, honako egoera iragan-korra pasatzen ari nintzen. Libratu egin nintzela uste nuen bizitza oparotasun hark eman zidan gozamenaz, eta gozamena izan zen baina kezka

eta beldurrez lagunduta etorri zen. Gustura hasi nintzen afaltzen, bidaia luze batetik nekatua izango banintz bezala. Ordura arte ez nuen badaezpada ezer jan. Baina, mahaitik jaiki aurretik, ene eldarnioek ostera ere harrapatu ninduten, katuak xagua harrapatzen duen modura. Pozoia berriz hasi zen nire buru gizagajoarekin jolasten. Nire etxea gure lagunen etxetik gertu egonda, eta kotxe bat nire zerbitzuan izanik ere, amets egiteko eta zoramenaren aurrean ardura-gabetzeko beharrak liluratu egin ninduen eta pozez onartu nuen hurrengo egunera arte gertatzeko gonbidapena. Gaztelua ezagutzen duzu, badakizu jabeek erabiltzen duten zatia konpondu egin dutela, baina normalean erabiltzen ez den partea zegoen moduan utzi dute, estilo eta dekorazio zaharrak mantenduz. Gazteluko alde honetan niretzako gela momentuan prestatuko zidatela erabaki zuten eta gelarik txikiena aukeratu zidaten. Logela higatu eta zaharra zen baina ez zuen horregatik xarmarik galtzen. Nola edo hala deskribatu egin behar dizut logelan jasan nuen irudipen bitxia uler dezazun. Gau osoa

iraun zuen, baina ez nuen orduen alde egiteaz ohartzeko paradarik

Logela oso txikia da, estua. Erlaitzaren altueran borobildu egiten da sabaia, ganga eginez. Hormak ispilu estu eta luzez estaliak daude eta hauen artean dekorazio estilo arina duten paisaiak daude panel batzuetan pintatuta. Erlaitzaren altueran, lau hormen gainean, zenbait irudi alegoriko dago, batzuk atsedeneko jarreraz, beste batzuk korrikan edo bueltak ematen. Hauen gainetik hainbat txori distiratsu eta loreak ere badaude. Sabaiak duen berezko kurbarekin bat burdin-hesi itxura duen pintura bat dago, irudien atzean. Sabaia urre kolorekoa da. Hala bada, moldura eta zirrikitu guztiak ere urrez estalita daude eta horren erdian itxurazko burdinsare geometrikoak banatzen du urrea. Ikusten duzunez, oso kaiola dotorea ematen zuen, txori handi batentzat kaiola ederra. Gau benetan ederra zela ere erantsi behar dut, gardena oso. Ilargia bizia zen. Kandela itzali eta gero ere dekorazio guztia ikusi ahal nuen. Ez ordea, gogoren begiak argiturik, imajinatu dezakezunez, gau ederraren argitasunaz baino. Bere distirak

urrezko bordatuetara heltzen ziren, ispilu eta kolore anitzetara.

Nire aurrean gune zabalak ikusterakoan harritu egin nintzen hasieran, nire ondoan zeuden, alde guztietan. Ibai garbiak eta ur bareetan isladatzen ziren paisaia berdeak ziren. Ispiluetan emendatuko panelen efektua imajinatuko duzu. Begiak altxatzerakoan, hozten ari den metal urtuaren antzeko eguzki sarrera ikusi nuen. Sabaiko urrea zen baina burdin-hesiak kaiola batetan edota alde guztietatik zabaldutako etxe batetan nengoela pentsarazi, nire espetxe zoragarriko barroteek gauza miragarri orotik banatzen ninduelarik. Lehenik nire begitazioari barre egin nion, baina begiratzen nuen heinean magia handitzen zihoan, biziago egiten zen, mirariak zeuzkan gardentasuna eta errealitate zapaltzaila areagotuz. Orduetik aurrera itxialdia izan nuen gogoeta nagusi. Baina egia esateko horrek ez zidan eragozten nire inguru eta gainean nuen ikuskizunetik ateratako gozamenak dastatzea. Nire burua kaiola dotore hartan denbora luzean sartuta ikusten nuen, milaka urtetan apika, paisai magikoen eta zeruertz zoragarrien artean.

Basoko loti ederrarekin amets egin nuen, baita erruen ordaintze eta garbitzearekin ere. Tropiko-ko txori distiratsuak jira biraka ari ziren nire buru gainetik. Nire belarriak urrutian ikusten zen bide handitik zebiltzan zaldien txilinak sumatzen zituen eta gauza biak elkartuz ideia bakarra egini- nik, txoriei kobrezko doinu misteriotsua atxiki- tzen nien eta metalezko eztarriaz kantatzen zutela uste nuen. Niri buruz ari ziren solasean, jakina, eta nire gatibutza ospatzen zuten. Tximi- noak zilipurdika eta bufoi lizunak etzanda zego- en presoari barre egiten ziotela ematen zuen, mugitu ere ezin zuelarik egin. Baina jainko mito- logiko guztiek irribarre xarmantaz begiratzen zidaten, sorginkeria lasaitasunez jasateko ado- rea ematen bezala, eta begi guztiek keinu egiten zidaten nire soaren bila. Nire aspaldiko erruak, ezagutzen ez nituen bekatuek zigor pasakor hori eskatzen bazuten, goiko ontasun batek lagundu ahal zidala erabaki nuen. Hark, zuhurtzia inposa- tzeaz gain, gure gaztedia betetzen zuzen ume gozamenen orde bestea ganorako plazer batzuk eskainiko lizkidake. Ikusten duzunez, ardura moralak ez ziren nire ametsetik at. Baina irudi

eta kolore distiratsu hauek begiratzeak ematen zidan gozamenak, eta drama fantastiko baten ardatz izatearenak ere, beste gogoeta guztiak baztertzen zizkidatela aitortu behar dut. Egoera honek luze iraun zuen, agian luzeegi... Goizera arte iraun al zuen? Ez dakit. Bat-batean goizeko eguzkia ikusi nuen nire gelan sartuta. Biziki harritu nintzen eta nahiz eta oroimena benetan saiatu, ezinezkoa izan zait lo egin ala insomnio zoragarria jasan nuen jakitea. Oraintsu gaua zen, eta orain eguna! Eta luze egin zitzaidan ordea, benetan uztea! Behin denboraren kontzeptua, edo hobeto esanda denboraren neurria deuseztuz gero, gau hura nire gogoeten aniztasunaren arabera baino ezin dut neurtu. Oso luze izan zela pentsatuta ere segundo batzuk besterik ez zuela iraun iruditzen zait, edota eternitatean ez zuela lekurik hartu.

Eta nekeari buruz zer esanik ez... Sekulakoa izan zen. Esaten dutenez, bizi nuena poeta eta sortzaileen liluraren antzekoa izan zen, jendea hunkitzeaz arduratzen direnek jite lasaikoak izan behar zutela uste banuen ere. Baina eldarnio poetikoak konfitura koilaratxoak eman zidana-

ren antzik baldin badu, poetek publikoaren gozamenena larrutik ordaintzen dituztela pentsatzen dut. Eta ni neu nire baitan sentitu nintzenean, nire sen intelektualean, egiazko bizitzan esan nahi dut, ondo sentitu nintzen, asetasun prosaikoak.»

Emakume zentzuduna dugula argi dago. Baina haxixak eragiten dituen sentipen nagusien azaleko deskribapena osatzerakoan ohar baliagarriren bat ateratzeko besterik ez dugu erabiliko bere kontakizuna.

Afaria une egokienean iritsitako gozamentzat hartzen du andreak. Behin-betikoa zirudien barealdi pasakorrak benetako bizitzara itzultzea laga behar zion une berean. Esan dudan bezala, iruzurreko barealdiak, hain zuzen, aldizka ematen dira, haxixak maiz eragiten du gose bizia eta ia beti gehiegizko egarria ere bai. Baina afaltzeak edo edozein jateak ere, behin-betiko atsedena sortu ordez areagotu egiten du. dama honek salatzen zuen zorabioa, zorionez eta borondatez onartu zituen sorginkeriako begitazioak erakarriz. Nolabaiteko lazturaren kutsua izaten dute begitazio hauek. Menpetzen duten

gose eta egarria ez dira hainbat ahalegin eta gero baino asetzen. Gizona materiazko gauzen gainetik sentitzen denez edota hain horditurik sentitzerakoan, adore handia erabili behar izaten baitu botila bat edo sardexka bat mugitzeko.

Jakien liseritzeak ekartzen duen behin-betiko krisialdia, hain zuzen, oso bortitza da. Ezin da borrokatu. Horrelako egoera ezin izango zen pairatu luzeegi balitz eta hordialdiko beste fase batek ez balu erraztuko. Aipaturiko kasuan beldur goxoa ematen duten irudipen ederrak dira emaitza, aldi berean kontsolagarri diren irudiak. Ekialdekoek *kief* deitzen duten egoera da hau. Jadanik ez da gauza asaldatu eta nahasia, zorion lasai eta geldia da, etsipen loriatsua. Zure buruaren jabetza galdu duzu orain dela asko, baina jada ez zara samintzen. Mina eta denboraren ideia desagertu egin dira. Behin edo behin agertzen ausartzen badira, sentsazio nagusiak eraldatzeko izango da eta bere ohiko izaerarekin ez du poesiaren malenkoniak min onuragarriarekin duen baino zerikusi handiagorik.

Baina andre honen kontakizunean (horretarako idatzi dut) haluzinazioa endekatu samarra

dela azpimarra dezagun batik bat. Izateko zioa kanpoko ikuskizunetik ateratzen du haluzinazio honek, gogoia ez da ingurua bestela islatzen duen ispilua baino. Ondoren, nik haluzinazio morala deituko nukeena ikusten dugu lanean: erruen ordaintze baten menpean dagoela uste du droga hartzen duenak. Baina emakumezkoaren jiteak gauzak aztertzea gogoko ez du eta ez dio laga haluzinazioa delakoaren izaera baikorra ikusten. Olinpoko jainkotasunen begirada onberak funtsezko poesia kutsu haxixtar bat jasotzen du. Ez dut esango emakume honek aladura saihestu duenik. Baina nire gogoetek, une batez malenkonia eta damuari begira, laster hartu dute itxaropenaren kolorea. Berriz ere frogatu ahal izango dugun burutapena da hau

Biharamuneko nekeaz ere berba egin du andreak. Neke handia da, bai, baina ez da berehala ematen eta igartzea baino ez daukazunean harriduraz igartzen duzu nekea. Lehenik, zure bizitzako zeruertzetik egun berri bat irten dela ikusten duzunean izugarri ondo sentitzen zara, zure gogoak arintasun zoragarriaz gozatzen duela uste duzu. Baina zutitu orduko horditasun

arrasto batek jarraitu eta alfertzen zaitu, menpekotasun berriaren kate bezala. Zure zango ahulek ez zaituzte herabeki baino eramaten eta objektu hauskor baten modura apurtzeko beldur zara. sekulako moteltasun honi xarmarik ez zaio-la falta esaten duenik ere bada. Zure gogoaz jabetzen da eta zure ahalmenetatik zabaltzen da lainoa paisaiatik zehar bezala. Hemen zaude, oraindik ordu batzuetarako, ez zara gauza, lan egin, ekintza edo kemenerako. Nerbio-kinada oparotasun lotsagabez alferrik galtzeagatik zigorra da. Zure nortasuna lau haizetara zabaldu duzu, eta orain izugarri kostatzen zaizu atzera bildu eta bat egitea!

IV.— JAINKO-GIZONA

Haur buruberoek sorturiko esku-joko eta txo-txongilo handi hauek baztertzeko ordua dugu. Ez al dugu hitz egiteko gauza benazkoagorik? Alegia, giza sentimenduen aldakuntza eta hitz batean, haxixaren moralari buruz.

Oraindaino ez dut egin horditasunaren monografia laburra besterik, ezaugarri nagusiak bakarrik azpimarratu ditut, batez ere ezaugarri materialak. Baina gizon izpiritualarentzat, nik uste, garrantzi handiagoa dauka pozoiak gizonaren alde izpiritualean egiten duena ezagutzeak. Hau da, ohiko sentimendu eta hautemate moralaren handitze, deformazio eta gehiegikeria, giro apartan egiazko errefrakzio fenomenoak eragiten duena.

Aspaldidanik haxix edo opioari emanda, morrontzaren ohiturak ahulduta dagoena eta bertatik irteteko indar nahikoa lortu ahal izan duena, ihes egin duen preso iruditzen zait. Tentaldia beti saihesten arduratu den hutsik gabeko gizon zuhurra baino gehiago miresten dut. Inge-

lesek, opioa hartzan dutenentzat maiz erabiltzen dituzten hitzak, gainbehera honen kalteak eza-gutzen ez duen errugabeei gehiegizkoak iruditzen zaizkie: *enchained, feetered, enslaved!* Kateak bai, eta hauen aldean beste guztiak, beharraren kateak edota maitasun debekatuare-nak ere ez dira gasako bilbea eta armiarma-sarea besterik! Gizonak bere buruarekin egiten duen ezkontza izugarria! «Opioaren esklabo bihurtu nintzen, harrapaturik ninduen eta lan eta asmo guztiek nire ametsen kolorea hartu zuten.» dio Ligeiaren senarrak. Edgar Poe gogoaren gai-xotasun misterioetsuei dagokienez beti aipatu beharra dago. Poeta paregabe eta filosofo ezta-baidea ezin honen pasarte zoragarri guztietan agertzen dira opioaren itzal eta distira erakusga-riak. Berenice argitsuaren maitale den *Egeus* metafisikoak bere ahalmenen aldaketaz hitz egi-ten du. Honek gauza arruntei ezohiko balio itze-la ematera behartzen du. «Ordu luzeetan neke barik pentsatu, liburu baten marjinako edozein ohar ziztrin edo testuan arreta finkaturik, - udan, egun ia osoa tapizeria edo lurreko itzal arraro batean murgildurik geratuta, - gau oso batez

nire burua ahantzi lanpara baten sugar edo supazterreko txingarrari begira, - egun osoak lore baten usainarekin amets egin, - berba arrunt bat behin eta behin errepikatu, soinuak behar duen ideia adierazteari uzten dion arte, errepikatzearen poderioz. Hauek ziren nire buru-ahalmenak jasaten zituen aberraziorik normal eta kalte gutxienekoak. Aberrazio hauek, dudarik gabe, badute beste eredurik, baina azalpen eta azterketa oro baztertzen dute.» Eta Auguste Bedloe urduriak goizero, paseatu aurretik bere opioko dosia jaten du, eta eguneroko pozoitzea-ri ateratzen dion probetxu bakarra zera da, gauza guztiak, baita huskeri txikiena ere, interesgarri gertatzen zaizkiola.: «Opioak aldiz, bere ohiko efektua sortu zuen, alegia, kanpoko mundu guztia interes berri batez jantzi. Orri baten dardara, - belar-izpi baten kolorea, - hirus-ta baten forma, - erle baten burrunba, - ihintz tanta baten distira, - haizearen hasperena edota basotik datozen usain arinak direla-eta inspirazio mundu oso bat ematen da, rapsodiako gogoeta nahasi errenkada apart eta nabarra.»

Horrela adierazten da, bere pertsonaien ahotik, izugarriaren maisua, misterioaren printzea. Opioaren bi ezaugarri hauek haxixari ederto atxiki ahal zaizkio. Kasu baten zein bestean, orainago libre zen adimena esklabo bihurtzen da. Baina rapsodia hitza, kanpoko mundua eta zoriak pentsatu eta agindutako gogoeta ilara hain ondo azaltzen duenez, haxixaren kasua egi argi eta ikaragarriagoa da. Korronte guztien menpe den hondarra besterik ez da arrazoia, eta gogoeta ilara *infinitu* bizkorrago eta rapsodikogoa. Hau da, nahiko argi ikusten dut haxixa opioa baino askoz sutuagoa dela berehalako efektuari dagokionez, bizitza ordenatuaren etsai handiagoa da eta hitz batean, askoz ere asaldariagoa. Haxixarekin hamar urtez toxikatzeak ez dakit opioko hamar urtek dakarten hondamendirik sortzen duen, orainaldi eta biharamunean haxixak kalte handiagoa egiten duela besterik ez diot. Bata limurtzaile barea da, bestea aldiz deabru eragabea.

Gimnasia arriskutsu eta goxo honek sortzen duen hondamendi morala gura dut definitu eta aztertu azken zati honetan. Hondamendia hain

da handi eta arriskutsua ezen Proteo multiformearen zulotik ihes egindako ausartak iruditzen baitzait borrokatik oinaze gutxirekin itzultzen dena, infernua gainditu duen Orfeo bailitzan. Nahi duenak neurrigabeko metaforatzat hartuko du hizkuntza hau, dena den pozoiz bizigarriak ilunpeetako izpirituak duen gizaki negargarria bereganatu eta menperatzeko biderik izugarri eta seguruenaz gain, bere gauzatzerik perfektuenetarikoa ere otutzen zaidala aitortu behar dut.

Oraingoan zeregina arintzeko eta azterketa argiagoa izan dadin, pasadizo sakabanatuak kontatu beharrean fikziozko pertsonai bakar baten gainean egingo ditut esatekoak. Beraz nik aukeratutako arima behar dut. Bere *Aitormenak* liburuan, De Quincey-k arrazoiez dio opioak gizonari lo eragin ordez kitzikatu egiten duela, baina berezko joerak agintzen dion bidetik baino ez da kitzikatzen. Halatan opioaren gauza miragarriak azaltzeko alferrikakoa liteke itzain bat hartzea, idi eta larreekin besterik ez baitzuen amets egingo. Hortaz ez dut haxixak hordituriko abeltzainaren amets astunik deskribatuko. Nork irakurriko

lituzke gustura? Nork irakurtzea onetsi? Nire kontua idealizatzearen bere izpi guztiak esparru bakarrean pilatuko ditut, polarizatu behar ditut. Eta izpi hauek bilduko dituen esparru tragikoa, esan dudanez, nik aukeratutako arima izango da. XVIII. mendean arima sentibera edota eskola erromantikoak gizon ez ulertua deitzen zuenaren antzeko zerbait, burgesiako familiek original epitetoaren bitartez distira kentzen diote arima honi.

Honelako horditasuneko bilakaerarako egokiena jite erdi urduri eta erdi behazuntsua da. kulturaz jantzitako burua erantsi diezaiozun, forma eta koloreen ikasketan trebatua. Bihotz samur eta zorigaitzak nekatutakoa, baina beti eraberritzeko prest. Aspaldiko erruak onartzera ere iritsiko gara, nahi baduzu, eta izaera asaldaeraz batean normala denez, zikindu eta txarto erabilitako denborak eragindako damua ere bai, aladura positiboa ez bada. Metafisika interesatzea eta filosofiak gizakiaren patuari buruz dauzkan hainbat hipotesien ezaguera ere ez dira izango alferrikako osagarriak, ezta bertute-zaletasuna ere, bertute abstraktua, estoiko edo mis-

tikoa, haur modernoen elikagai diren liburuek oinarri dutena, gailurrera igotzen den arima gorenaren modura. Derrigorrezkoa ez den baldintza bezala, aipatu ez dudan sentimen fintasuna gehitzen badiogu, gizon sentibera modernoaren ezaugarri nagusi arruntenak bildu ditudalakoan nago, *originaltasunaren forma hutsala* dei dezakeguna. Ikus dezagun orain haxixak etsigabe sustatzen duen banakotasunarekin zer gertatuko den. Giza irudimenaren bilera hau bere azken zoragarriraino jarrai dezagun, banakoak bere buruaren jainkotasuna sinetsi arte.

Honetarikoa bada zure gogoia, zure horditasuneko lehen bilakaera zure berezko forma eta kolore-zaletasunaren bizigarri izango da. Koloreek aparteko indarra hartuko dute eta kemen itzalaz sartuko zaizkizu buruan. Guretzat, erdi-purdiko edo benetan txarrak badira ere, sabaiko pinturek ikaragarriko bizitza hartuko dute, ostatuetako paretak estaltzen dituzten paper margoitu kaskarrenak ere diorama zoragarriak bailiren harrotuko dira. Haragi distiratsuko ninfek zerua eta lurra baino begi handi eta sakonagoz begiratzten dizute. Antzinateko pertsonaiek, apaiz edo

militarrez jantzita, begirada hutsa erabiliz aitor-
menak egiten dizkizute. Lerroen bihurguneak
gogoaren desira eta asaldura irakurtzeko hizkun-
tza erabatekotzat dituzu. Bitartean gogoaren
egoera misteriotsu eta pasakor hau garatzen da,
non bizitzaren sakontasuna, bere arazo anitzek
laztua, bere osotasunean adierazten baita begi-
bistan daukagun ikuskizunean, nahiz eta oso
natural eta garrantzirik gabekoa izan. Hemen
sinbolo bihurtzen da sumatzen duzun lehen
objektua. Fourier eta Swedenborg, bere *pareko-
tasunekin* bata eta bere *korrespondentziekin*
bestea, begietaratzen zaizun animalia eta landa-
reetan gauzatu dira, eta ahotsaren bitartez ira-
katsi beharrean forma eta koloreen bidez hezten
dute. Zuk ere ezagutzen ez duzun neurria har-
tzen dute adimenak eta alegoriak. Bide batez,
pintore kaskarrek arbuia egin diguten alego-
riak, poesiaren formarik jatorrizko eta naturale-
na izanik ere, berezko nagusitasuna berreskura-
tzen du horditasunak argitutako adimenari
esker. Haxixa bizitzatik zehar zabaltzen da pintu-
ra magikoa bailitzan, horditasunez koloreztatzen
du eta bere sakontasuna argitzen du. Paisai

marraskatuak, zeruertz iheskorrak, ekaitzak duen hilotzaren zurbiltasunak zuritutako hirien ikuspegiak edo eguzki sarrerak eragindako galdek argituak, espazioaren sakontasuna, denboraren sakontasunaren alegoria dena, dantza, antzezleen keinu edo deklamazioa, antzoki batera sartu bazara, datorkizun lehen esaldia, liburu bat suertatzen bada zure begien bistan, orduraino susmatu ere ez duzun aintza berriaz agertzen zaizu izateen unibertsaltasuna. Gramatika astuna ere sorginkeria deitzaile bihurtzen da. Hitzak hezur-haragiz jantzita berpizten dira, izena bere funtsezko handitasunaz, adjektiboa izena jantzi eta koloreztatzen duen lausodura bezala eta aditza mugimenduaren aingeru, esaldiari zanbulari ematen diona. Hainbat lanetan distrazio bila dabilzan alfer eta izpiritu sakonek mate duten musikak zuri buruz hitz egiten dizu eta zure bizi-tzako poema kontatu, zurekin bat egiten du eta zuk berarekin ere bai. Ez du zeure gau laxoetan bezala zure grinaren gainean berba egiten, moduarin eta zehaztugabe, operan bezala. Oraingotan egoerarekin bat eginik ukitzen du zure grina, erritmoaren mugimendu bakoitzak zure gogo-

ren mugimendu ezagun bat agintzen du, nota bakoitza hitz bihurtzen da, eta poema osoa buruan sartzen zaizu bizitza hartu duen hiztegi baten antzera.

Fenomeno hauek guztiak gogoan nahasturik ematen direla ez dago pentsatu beharrik. Alegia, errealitatearen doinu oihulari eta kanpoko bizi-tzako desordenarekin ez da nahastu behar. Barneko begiak dena eraldatzen du eta gauza bakoitzari benetan gustagarri izateko falta zaiona ematen dio. Funtsean haragikoi eta sentsual den fase honi dagokio ur gardenen maitasuna, korrontean doan eta geratuta dagoen ura ere bai. Modu harrigarrian garatzen da hau zenbait artisten buru hordituan. Egarrri izpiritualaren pareko den amets honen aitzaki bihurtzen dira ispiluak. Lehenago aipatu dudan egarriarekin bat dator egarrri hori, eztarria lehortuz. Ur iheskorrak, ur jokoak, urjauzi harmoniatsuak eta itsasoren handitasun urdina irauli egiten dira, kanta-tu, lo egiten dute xarma adieraztezinez. Benetako sorgina bailitzan zabaltzen da ura. Eta haxiak zoramen amorratuak eragiten dituela sinestearen oso alde ez banaiz ere, espazioa eta kris-

tala gogoko dutenentzat osin garden bati begiratzek arriskurik ez duela ez nuke esango, Ondinaren alegia zaharra egia bihurtu baita buruberoentzat.

Denbora eta espazioaren handitze izugarriaren gainean nahikoa hitz egin dudala uste dut. Beti loturik agertzen dira bi ideiak, baina gogoak orain atsekabe eta beldurrik gabe egiten die aurre. Nolabaiteko atsegin malenkoniatsuz begiratzen du urte sakonetatik zehar. ikuspegi infinituetan murgiltzen da. Handitze arraro eta zapaltzaile hau sentimendu eta ideia orori atxikitzen zaiola erraz asmatu daiteke: bai borondate onari zeinaren frogantza ederra eman dudala uste baitut, eta baita maitasunari ere. Edertasunaren ideiak modu naturalean hartu behar du lekua asmatu dudan gisako izaera izpiritualean. Harmonia, lerroen zambulua eta mugimenduen oreka, beharrak bailiren agertzen zaizkio amesgileari. *Betebeharren* antzera, baina ez bakarrik kreazioko izate guztientzat, baizik eta amesgile berarentzat ere bai. Honek erritmo hilezkor eta unibertsala ulertzeko ahalmen zoragarria du krisialdiaren aldi honetan. Eta gure buru beroak

edertasun pertsonalik ez badu, hori aitortzera behartu izanda ere, ez pentsatu nota desafinatu-tzat hartuko duenik bere burua, irudimenak asmatutako harmonia eta edertasun munduan. Haxixaren sofismak ugari eta miresgarriak dira. Orokorrean optimismoaren aldekoak izaten dira eta nagusienetariko bat, eraginkorrena, nahia errealitate bihurtzen duena da. Dudarik gabe, ohiko bizitzaren kasu anitzetan ere ematen da sofisma hau, baina hemen irrika eta zorroztasun askoz handiagoz. Bestalde, nolatan egingo luke salbuespenik edo laidorik bere teoriar harmonia ulertzeko, hain izaki trebeak, edertasunaren apaiz antzeko honek? Zenbait ideiak ageriko zatarkeria zuzentzen dute, edertasun morala, bere indarrak lagunduta, grazia bere lilurarekin eta bokantza bere egitandiek ere bai. Kontsolatu egiten dute gero eta nagusitza ederto lau-sengatu azkenik.

Maitasunari dagokionez, pertsona askori entzun diot haxixa hartzen dutenengandik informatu nahi izatea, ume kuxkuxeroen antzera. Zer izan daiteke maitasunaren horditasuna, berez oso indartsua dena, beste horditasunean sartu-

ta, eguzki bat beste eguzki baten barruan bezala? Honako galdera hau egingo du jende askok. Mundu intelektualeko begiluzeak iruditzen zaizkit niri horrela pentsatzen dutenak. Susmo lizun bati erantzuteko, alegia, egin barik geratzen den galdera zatiari, Plinioren lana gomendatuko dut. Honek mota honetako ametsak suntsitzeko moduan hitz egin zuen nonbaiten kalamuaren propietateei buruz. Gainera, nerbioak eta substantzia bizigarriak gehiegi erabiltzen direnean jakina da makaltasuna izaten dela emaitzarik normalena. Hemen ez da ematen bada indar eraginkorrik baizik eta emozioa edo minberatasuna. Hortaz, pentsa dezala irakurleak haxixaz horditutako gizon urduri baten irudimena izugarri sustatzen dela. Honen indarra mugatzea, urakana baretzea bezain zaila izaten da eta bere zentzuak neurri berdinean zorrozten dira. Beraz, normala da pentsatzea edozein laztan, tolesgabeena ere, bostekoa ematea adibidez, ehun bider indar dezakeela gogoaren eta zentzuen egoerak. Eta horrela, agian, hilkor arruntek zorionaren mukurua deritzoten sinkope hori emango litzateke. Zalantzarik gabe, maitasun

arazoetaz sarri arduratzen den imajinazioari oroitzen samurrak suspertzen dizkio haxixak. Minak eta atsekabeak oroimen honen distira areagotzen du gainera. Gogoaren asaldura honi atseginzaletasun dezente eransten zaio. Eta haxixaren moraltasunik eza frogatzeko nahikoa genuke ismaeldarren pasadizoa (hauen artean atera ziren اساسوak). Sekta ismaeldar bat Lingam inpartzialaren gurtzatik askoz urrunago ere iristen zen, hau da, sinboloaren emakume zatia bakarrik gurtzen zuten. Gizon bakoitza historia-
ren irudia izanik, oso naturala litzateke heresia lizun bat ikustea hemen. Infernuko droga bati emanik bizi den gogo koldarraren baitan sortzen da erlijio nardagarria, bere gaitasunen xahutzearen alde agertzen den gogoaren baitan.

Haxixaren horditasunean onginahi bitxia ematen dela ikusi dugu, baita ezezagunekin ere, maitasunez baino errukiz eratutako filantropia litzateke (izugarri garatuko den izpiritu maltzuraren lehen hazia dugu hemen). Baina edonor samintzeko gehiegizko beldurra ekartzen du onginahi honek, are gehiago gaixoaren bizitza moralean gauza inportanterik egin duen pertso-

nari zuzentzen zaionean sentimentaltasun zehatz hau. Gurtza, adorazioa, otoitza, indar handinahiez eta suziri baten distiraz zabaltzen dira zorioneko ametsak. Argiaz itsutu eta itza-lean deuseztu egiten dira bolbora eta suaren substantzia koloratzaileen antzera. Haxixaren esklaboak hartu ez dezaken aukera sentimentalik ez dago. Babesaren gutizia eta aitatasun sentimendu bizi eta arduratsua sentsualitate errudun batekin nahastuko da, haxixak beti zuritu eta barkatu egingo duena. Urrunago iristen da haxixa. Ariman arrasto saminik utzi duten erruak otutzen zaizkit. Senar edo amorante batek tristuraz (bere egoera normalean) begiratzen du hondamenak jotako iragana. Samindura atsegin bihurtu daiteke oraingoan. Barkamen beharrak trebe eta erregutzaile bihurtzen du irudimena eta aladura bera bizigarri izan daiteke eta gogoia indarrez berotu dezake bakarrizketa luzean ematen den deabruzko drama honetan. Aladura, bai! Benetako gogo filosofikoaren aurrean haxixa deabruaren tresna perfektu baten moduan agertzen dela esaten nuenean, oker al nengoen? Gozamenaren osagai bitxia den atadura, atadu-

ra beraren begiratze goxoan murgiltzen da. Nolabaiteko azterketa atseginzalea ematen da, eta azterketa hain azkarra izanez, gizonak, edota swedenborgtarren modura esatearren, deabru naturalak ez du azterketa antzematen, nahigabekoa izaterakoan, eta segundotik segundora azterketak lortzen duen deabruaren perfekzioa ere ez du antzematen. Bere aladura *miresten* du eta askatasuna galtzen duen bitartean harrotu egiten da.

Hona hemen asmatu dudan gizona, aukeratu dudan arimak lortu dituen poz eta sosegua direla-eta bere burua mirestera beharturik gertatzen da. Kontraesan oro desagertu egiten da, arazo filosofiko guztiak garbitu egiten dira edo horren itxura ematen du behintzat. Gauza oro da dibertigarri. Momentuan gozatzen duen betetasunak izugarri harrotzen du. Bere buruan ahots batek (zoritxarrez bere ahotsak) esaten dio : «Zure burua beste guztien gainetik ipintzeko eskubi-dea duzu, pentsatu eta sentitzen duzuna ez luke inork ulertuko, besteek eragiten dizuten asmo ona ere ez luke inork estimatuko. Jendeak eza-gutzen ez duen erregea zara zu, zure ustean

bakarrik bizi zara, baina zer axola zaizu? Ez al duzu arima hobetzen duen mesprezua zure alde?»

Hala ere noizbehinka oroitzapen latz batek zoriona zeharkatu eta usteltzen duela asmatu dezakegu. Kanpoko gauzek eragindako asmoak iragan latza ekarri dizute gogora. Pentsamen-duen erregeak merezi ez dituen ekintza inozo eta doilorrez beteta agertzen da iragana, duintasun ideala zikinduz. Sinets ezazu, gaitzespen mamu hauek adorez borrokatuko ditu haxixa hartzen duen gizonak. Gozamen eta hantustea sentitzeko aitzakia berriak aterako dizkio oroitzapen zakarrari. Hau da bere gogoeten bilakera: behin hasierako mina pasatuz gero, bere aintza lausotzen duen ekintza edo sentimenduak aztertzen ditu. Garai hartan eragin zioten arrazoiak edota inguruko gorabeherak, eta hortik ez badu bere errua barkatu edo arintzeko motiborik ateratzen, ez da horregatik lur jota geratuko. Kristal garden baten bitartez mekanismo baten jokia ikusiko banu bezala begitantzen zait bere arrazoiketa : «Asalduraz gogoratu dudana ekintza irrigarria, koldar edo doilorra, nire benetako

izaerarekin ez dator bat. Nire oraingo izaerak, nire iragana salatzen duen kementa barne, nire bertute gorenaren gaitasuna frogatzen du, aztertu eta juzgatzeko dudan arreta bereziak lagundurik. Bere burua juzgatu eta gaitzesten duen zenbat gizon trebe eta zorrotz dago munduan?» Kondenatu eta laudatu ere egiten du bere burua. Bertute, karitate eta jeinu ideal honek oroitzapen zakarra bereganatzen du eta gogoaren orgian murgiltzen du bere burua. Aitortzaren sakramentuari kontra egiterakoan, aldi berean penitentziagile eta aitorlea, benetan erraz barkatzen du bere burua. Edo oraindik okerrago, gaitzespenak bere harrokeria puztu egiten du. Bere amets eta asmo onen begiratzetik ondorioztatzen du gauza onak egiteko itzeleko gaitasuna duela. Bere idealak betetzeko adorea frogatzat hartzen du bere amodiozko kementa, bertutearen ideiarri buruz jarduterakoan. Ametsa eta ekintza zeharo nahasten ditu. Irudimena geroz eta gehiago berotzen zaio bere izaeraren zuzenketa eta idealizazioaren ikuskizunaren aurrean. Bere burua onartu ordez, borondate gutxiko eta harroputza, irudi liluragarri bat

hartzen du. Bere gorespena berba garbi eta lau hauekin adierazten bukatzen du, gozamen mundu gogaikarri bat ekartzen dioten berba hauek : «Gizon guztien artean bertutetsuena naiz ni.»

Ez al dizu honek Jean-Jacques gogoratzen? Nolabaiteko atseginzaletasunez unibertsoaren aurrean aitortu eta gero, ez al zuen berak ere garaipena aldarrikatu (edo oso antzerako zer-bait) egiazkiro eta bere esanean konbentziturik? Bere balore morala erabat goraiatzeko nahiko zuen bertutea miresteko sentitzen zuen irrika edota ekintza onen aurrean eta egin nahi izan zituen ekintza on guztiak pentsatzerakoan hun-kipena sentitzen zuen, negar dut? Pozoiak men-peratua, nire gizonak bere burua unibertsoko zentrotzat nola hartzen duen esplikatu beharko dit? Gizona, pasioa bere buruaz besterik ez dela arduratzen ematen duen atsotitzaren bizia nola bihurtzen den, alegia. Bere bertute eta jeinuaz ziur dago. Ez al duzu bukaera asmatzen? Inguru-ko objektuek gogoeta mundu bat eragiten dute. Inoiz baino gogoeta koloredun, bizi eta zorrotza-goak, estalki magikoa dutenak. «Eraikinak deko-

ratu bat bezala mailakutzen diren hiri zoragarri hauek, pentsatzen du gizonak, badiako urak aisialdi nostalgikoan kulunkatzen dituen untzi lerrak, eta gure pentsamenduen esanahi eman-go bailigun: noiz abiatuko gara zorionerantz? Forma eta kolore hordigarriz beteak dauden museo horiek, - zientziaren lanak eta Musaren ametsak pilatzen dituzten liburutegiak, - kontzertuan ahots batez hitz egiten duten instrumentuak, - xarmatzen duten emakumeak, are xarmantagoak apaintasuna eta begirada neurtzeari esker, - honako gauza hauek guztiak niretzat sortu dira, niretzat, niretzat! Gizakiak beretzat lan egin du, beretzat jasan ditu oinaze eta sakrifizioa, nire emozio, ezagupen eta edertasun gosea asetzeko pabulumak bezala!» Aurrera egingo dut, laburbilduz. Ameslariaren burutik ateratzen den azken gogoeta gorenak ez du inor harrituko : «Jainko bat naiz!» Aldarrikatzen du bere bularretik, sutsu. Gizon hordituaren nahi eta sinesmenak benetan eraginkorrak izanen balira, zeruko bidetik zehar dabiltzan aingeruak ere irauliko lituzke bere oihuak, hain da kemen-tsu eta bortitza : «Jainko bat naiz!» Baina harro-

keri zurrunbiloa laster bihurtuko da zorion lasai, mutu eta pausatu. koloreanitz eta sufrezko egunsenti batek argituko bailuen agertuko da orain izakien unibertsaltasuna. Gizon zoriontsu eta negargarri honen gogotik oroitzapen lauso bat halabeharrez pasatuko balitz: ez al zen beste jainko bat? Honi hitz egingo lioke bere nahiak eztabaidatzeko inongo beldur barik. Alemaniako doktrina modernoei iseka egiteko zera esaten zuen filosofo frantsesa nor den ez naiz gogoratzten: «Txarto afaldu duen jainkoa naiz.» Burla honek ez du hunkituko haxixak harrapaturiko bihotza. Honek lasai erantzungo luke : «Agian txarto afaldu dut, baina jainkoa naiz ni.»

V.— MORALA

Baina biharamuna! Biharamun izugarria!
Organoak bigunduta, nerbioak motelduta eta
negargura izango dituzu, dardaraka. Lan batez
segidan arduratzeko ezintasunak joko debeka-
tuan aritu zarela esango dizu. Bezperako argiak
kenduta, jai baten arrasto malenkoniatsua hartu-
ko du natura ikaragarriak. Ahalmen guztien
artean estimatuena, borondateak hartzen du
minik handiena. Badiote substantzia honek ez
duela gaitz fisikorik ematen, gaitz larririk ez
behintzat eta nolabait egia da. Baina ekintzara-
ko gauza ez den gizona, ametsetarako bakarrik
balio duena, behar den moduan portatuko al da,
gorputzadar guztiak egoera onean izanik ere?
Hortaz, eta giza izaera apur bat ezagututa, kon-
fitura pitin batez zero eta lurreko ondasun oro
berehala lortzen duen gizonak ez dio lanari ezer
aterako. Hiritar guztiak haxixez horditzen diren
estatua imajinatu dezakegu. A zer nolako hirita-
rrak! Nolako gudariak! Nolako legegileak? Ekial-
dean, usantza hain zabaldua izanik ere, debeka-

tzeko beharra ikusi du gobernu zenbaitek. Izan ere gizonak debekatua du bere izatearen funtsezko baldintzak hondatzea edota bere ahalmen eta hauen inguruaren arteko oreka izorratzea. Hitz batean, ezin du bere patua hondatu beste mota bateko halabeharra hartzeko. Melmoth gogora dezagun, eredu miresgarria. Deabruarekin itun baten bidez berehala lortu zituen ahalmen zoragarrien eta Jainkoak deitua izanik jasan behar zuen egoitzaren artean dagoen aldean datza bere egundoko sufrimendua. Eta Melmothek bereganatu nahi duen jendearen artean inork ez dio bere abantaila ikaragarria erosi nahi baldintza berdinetan. Hain zuzen ere, bizitzaren baldintzak onartzen ez duen gizon orok arima saldu egiten du. Poeten sortze sata-nikoek, bizigarriei emaniko gizaki bizidunekin duten harremana bereiztea gauza erraza da. Gizonak Jainkoa izan nahi du eta menperatu ezin du lege moral bat dela-eta, bere benetako izaeraren azpitik desbideratzen da. Txikizka saltzen den arima da.

Borondateari uko egin baino lotsa handiagorik eta oinaze biziagorik ez zela uste zuen Bal-

zac-ek. Haxixaren efektu miragarriak eztabaidatzen zituen bilera batean ikusi nuen behin. Arreta eta bizitasun dibertigarritz entzun eta galdeztzen zuen. Idazlea ezagutzen zutenek interesaturik zela uste zuten. Baina bere buruaren kontra pentsatzeak sekulako espantua ematen zion. *Dawameska* eskaini zioten eta berak aztertu, usaindu eta ukitu gabe bueltatu zuen. Bere ume jakingura eta abdikazioari zion nazkaren arteko borroka aurpegian igarri zitzaion. Duintasunaren gutziak menperatu egin zuen idazlea. Izan ere, *borondatearen* teorizatzailea Louis Lambert bezain izpirituala *imajinatzea* zaila da, *substanzia* honen zati bat baztertzen duenean.

Eterrak eta kloroformoak zerbitzu miresgarriak egin dituzte. Baina izpiritualismoaren filoso-fiaren ikuspuntutik, gizakiaren askatasuna eta beharrezkoa den mina murrizteko egin diren asmakizun guztiei atxiki ahal zaie ustelkeria moral berdina. Nolabaiteko mirespenez entzun nuen ofizial batek kontatu zidan paradoxa. Jeneral frantses bati operazio latza egin zioten El-Agouat-en eta kloroformoa harturik ere hil egin zen. Oso gizon ausarta zen jenerala, eta are

gehiago, giza-legetsu hitza eman ahal zitzaion. «Ez zuen kloroformoa behar, kontatzen zidan, baizik eta armada osoa berari begira eta erregimentuen musika. Agian horrela bizirik atera zitezkeen!» Zirujauak ez zuen ofizialaren iritzia baina seguruenik kaperauak sentimendu hauek miretsiko zituzkeen.

Gogoeta hauen ostean haxixaren moraltasun eza azpimarratzea ez da beharrezkoa. Buru-hiltzearekin parekatzen dut nik, buru-hiltze motela. Beti odoltsu eta zorrotzurik dagoen arma, zentzudun den inork ez du kontrakoa esanen. Sorginkeriarekin konparatzen dut, gizonak galarazia duen eremua bereganatu nahi duen magiarekin, alegia, egokia ez den gizonari galarazia behintzat. Horretarako materia eta arkanoen bidez lan egiten dute sorginkeriak eta magiak, faltsukeria ala eraginkortasuna frogatu barik. Arima filosofikoa duen inork ez dit konparaketa hau gaitzetsiko. Elizak magia eta sorginkeria kondenatzen badu Jainkoaren asmoen aurka borrokatzen dutelako da. Denboraren lana deuseztu eta garbitasuna eta moraltasuna balio barik utzi nahi dute. Elizak ez baititu legezkotzat hartzen ardu-

rako borondate onez irabazitako altxorrek baino. Iruzurgile deritzogu beti irabazteko modua asmatu duen jokalaria. Txanpon batzuen truke zoriona eta jeinua erosi nahi duenari nola deituko diogu? Hutsezin izatean datza baliabidearen moraltasun eza. Magiari ere hutsezintasun honek ematen dio infernuko estigma. Gozamen bakarti guztien modura, haxixak gizabanakoa gizonentzat alferrikako bihurtzen duela erantsiko dut. Baita gizartea gizabanakoarentzat ere. Bere burua etengabe mirestera behartuta gertzen da eta bere Nartziso aurpegia miresten duen amildegirantz jausten doa.

Eta bere duintasunaren truke, bere prestutasun eta hautamenaren truke, gizonak haxixari atarramentu izpiritual handia atera ahal izango balio? Pentsatzeko makina lortuko genuke eta gizona baliabide emankor bihurtuko litzateke. Maiz entzun dudan galdera da hau eta erantzun egingo dut. Hasteko, luze esplikatuko dudan bezala, haxixak ez dio gizabanakoari bere burua baino ezagutarazten. Egia da gizabanakoa zeharo handitua izaten dela eta orgiaren ostean inpresioak gogoratzen direnez jende *praktiko*

honen itxaropena ez dirudi guztiz zentzugabea, gutxi begiratzen bada. Baina gogoeta hauei probetxu handia ateratzea espero dute, eta ematen duten bezain ederrak ez direla esango nieke. Behin-behineko mozorroak eta oropel magikoko estalkiak ematen diote kutsu hori. Lurretik zertik baino gehiago hartzen dute pentsamendu hauek eta urduritasunari zor diote edertasun parte handia, gogoak sentitzen duen irrikari. Itxaropen hau gorpil zoroa da gainera: onar dezagun une batez haxixak jeinua eman edo handitu egiten duela behintzat, haxixaren izaerak borondatea murrizten duela ahazten dute eta horrela alde batetik ematen ari dena bestetik ari da kentzen. Hau da, irudimenari ez dio probetxurik ateratzen. Azkenik eta borondatea sano mantentzeko gizon trebe eta kementsurik dagoela suposaturik, menpekotasun orok dakarren zorigaitzeko arriskua daukagu. Ohiturak bizkor bihurtzen dira behar. Pozoiaz pentsatzeko baliatuko dena ezin izango du pozoirik gabe pentsatu denbora gutxiren buruan. Imajinatzen al duzu irudimena bertan behera utzita duen gizo-

naren zoritxarra, haxixa edota opioaren laguntza barik funtzionatu ezin duenean?

Ikerketa filosofikoetan, gizakiaren gogoak abiapuntura itzultzen den bide bihurria jarraitu behar du, argizagien ibilera imitatuz. Burutzea zirkulu bat ixtean datza. Giza gogoia grazia berezi batek sustatua bailitzan agertzen duen egoera zoragarriari buruz jardun dut hasieran. Itxaropenak berpiztu eta infiniturantz goratu nahiez substantzia ororen gutizia eman dela esan dut, baita arriskutsuenena ere. Hauek, norberaren nortasuna asaldatuz, bigarren eskuko paradisia eskain dezakete, desira guztien xede den paradisia. Eta azkenean menturazko izpiritu hori infernura iristen da konturatu barik, bide-batez bere jatorrizko handitasunaren berri emanez. Baina gizona ez da farmazia eta sorginkeriarik laguntza eskatzeko bezain premiaturik, baditu zerua irabazteko baliabide zintzoagoak. Hurien laztan hordigarriak eta adiskidetasuna ordaintzeko ez dauka bere arima saltzeko beharrik. Zer da betiereko osasunaren truke erosten den paradisia? Izpiritualtasunaren olinpoan dagoen gizon bat irudikatuko dut (brahmana, poeta, filosofo

kristaua...)). Bere barau luze eta ohiko otoitzak arintzeko Rafaelo eta Mantegnaren Musak ditu inguruan, dantza jatorrak egiten dituzte, begirada goxoak eta irribarre distiratsuak botatzen dizkiote. Dena dakien Apolo gorenak (berdin dio Francavillarena, Albert Durer-ena, Gotziusena edo beste edozein Apoloa izatea, ez al da Apolo bat merezi duen gizon ororentzat?) bere arkuko sokarik sutsuenak laztantzen ditu. Bere azpian, mendi-hegalean, sasi eta lokatzaren artean, gizaki mordoak, esklabo taldeak, gozameneko keinuak egin eta pozoia ren haginak eragindako orroak botatzen dituzte. Eta poetak goibel esaten du: «Ez otoi eta ez baraurik egin ez duten zoritxarreko horiek lan ematen duen eroskunderari uko egin diote, eta naturaz gaindiko esistentziara zuzenean goratzeko baliabideak eskatzen dizkiote. Magiak engainatu egiten ditu eta gezurrezko zorion eta argia pizten die. Poetek eta filosofoek lan jarrai eta gauzak begiratzearen bitartez gure arima onera ekarri dugun bitartean. Borondatea maiz landu eta asmoa zintzo mantenduz egiazko edertasuna duen lorategia sortu dugu. Fedea mendiak mugitzeko gauza

dela esaten duten hitzei jarraituz, Jainkoak baimendu digun mirari bakarra egin dugu.